

**EAEKO NEGOZIAZIO
KOLEKTIBOAREN EGITURARI
BURUZKO AZTERLANA - 2001**

Lan Harremanen Kontseilua



Consejo de Relaciones Laborales

Legezko Gordailua: BI-2396-02

Fotokonposaketa eta inprimaketa: Estudios Gráficos Zure, S.A.
Ctra. Lutxana-Asua, 24A - 48950 Erandio Goikoa (Bizkaia)

Aurkibidea

	Orrialdea
AURKEZPENA	7
1. PROIEKTUAREN MARKOA	13
1.1. Sektoreko pribatuko enpresa-bilbearen bilakaera 1999-2001 bitartekoan ..	15
1.1.1. Establezimenduen dinamika 1999-2001	17
1.1.2. Enpleguari dagokion dinamika	21
1.2. Sektore pribatuko enpresa-bilbearen bilakaera, establezimenduen tamainuaren arabera	27
1.2.1. Establezimenduen bilakaera enplegu-tartearen arabera	27
1.2.2. Enpleguaren bilakaera enplegu tartearen arabera	29
1.3. Enpresa bilabearen bilakaera jarduera-sektorearen arabera sektore pribatuko enpresetan	31
1.3.1. Establezimenduen dinamika jarduera sektorearen arabera	31
1.3.2. Soldatuko enpleguaren bilakarearen dinamika jarduera sektorea ...	35
2. EMAITZEN LABURPENA	41
2.1. Estatuko eta EAE-ko lurralde eremua	45
2.2. Sektoreko negozioazio kolektiboaren panorama	48
2.2.1. Sektoreetako egituraren aniztasuna	53
2.3. Negozioazio kolektiboa enpresan	55
2.4. Herri-administrazioaren zenbaki nagusiak	59
2.5. Hitzarmenik gabeko jarduerak	63
2.6. Amaierako ondorioak	64

3. INFORMAZIO OSAGARRIA	67
A. Negoziazio kolektiboko eremuen bilduma	69
B. Negoziazio kolektiboaren egiturari buruzko mapa	81
B.1. Negoziazio kolektiboaren egituraren taula orokorra	83
B.2. Negoziazio kolektiboaren egituraren sektoreko eta lurraldeko laburpen fitxak	88
C. Estatistikazko eranskina: Sektoreko hitzarmen eguneratuak	113
C.1. Estatuko eremua duten hitzarmen kolektiboak	113
C.2. Lurraldeko eremua duten hitzarmen kolektiboak	121
C.3. Erkidegoko eta tokiko eremua duten hitzarmen kolektiboak	128

Aurkezpena

Argitalpen hau Negoziazio kolektiboaren egiturari buruzko azterlana – 2001 izeneko proiektuaren zabalkunderako laburpena da. Proiektu hori, izatez, bi urtean behin argitaratzen da eta aurtengo hau bosgarren edizioa da.

Proiektuaren helburu nagusia hau da: negozio-eremu desberdinetan dauden arautzeko markoak (eremu funtzionaleko eta lurralde-eremu guztietako sektoreko eta enpresako hitzarmenak) aldizka eta modu egituratuan identifikatzea eta haietako bakoitzari dagozkion enpresa edo establezimenduak eta lanpostuak zenbatzea.

Horretarako, 62.000 establezimendu¹ eta 654.000 lanposturi buruzko informazioa aztertu dugu ikerlan honetan, xehetasun eta konplexutasun handiko lan-metodologia baten bidez. Hartara, jarduera-sektore eta azpisektore bakoitzari dagozkion erregulazio-markoak aztertu ahal izan dira xehetasunik handienaz. Horiek guztiak eta EAEko enpresa-bilbearen egituraketari buruz bildutako informazio-masa handiari emandako tratamendua eta enpresetan zuzenean egindako eremuko lana, bada, denak jaso dira ikerlan honetan.

¹ Aurreko edizioetan bezala, estatistika-unitatea Gizarte Segurantzaren kotizazio-kontua da. Kontzeptu hori ohiz soldaten eta laneko kostuen estatistiken arabera eguneratzen da. Kontzeptu hori soldaten estatistikari eta INE bezalako erakundeek lan-konstuei buruz egiten dutenera egokitzen da. Gizarte segurantzaren kontu hau, enpresa berekoak direlarik, lan zentro bakarrean edo batzuetan inorentzat lan egiten duten langileen multzoak osatzen du, eta Gizarte Segurantzaren kotizazioari dagokionez, ezaugarri homogeneoak dituzte. Unitate hau, berez, ez dator bat zorrotasunez establezimenduarekin edo laneko zentroarekin, baina bai kasu batzuetan; horregatik, "establezimendu" hitza erabiliko dugu txostenean zehar.

Lan horren ondorioz, estatistikarako lortu duen xehetasunezko informazioaz gain, honako bi produktuen inguruan egituratu da batez ere:

- "Negoziazio kolektiborako eremuen bilduma", hau da, arautzeko markoen argazkia lurraldearen eta funtzioaren arabera egituraturik.
- "Negoziazio kolektiboaren egituraren mapa", hau da, aipatutako bildumako arautzeko marko bakoitzaren barruan gertatzen diren enpresen eta lanpostuen kopuruak.

Era berean, azterketa ikuspegi dinamikoz egin da: aurreko edizioetako datuak alderatuz, alegia. Hori dela eta, proiektuko kapitulu batean enpresen eta lanpostuen altak eta bajak aztertu dira. Horrela, lortutako emaitzei eta "Negoziazio kolektiboaren egituraren mapa" berari kokapen egokiagoa bilatu zaie.

Alta eta baje azterketan erabilitako metodologiak aurreko edizioetan erabilitako arau berberak erabiltzen ditu; hartara, aurreko edizioari buruz (1999) ikusten den bilakaera honako dinamikaz zehazten da:

- 1999an zeuden establezimenduak eta 1999 eta 2001 bitartean horietako zenbat desagertu (bajak) diren.
- 1999an irekita zeuden establezimenduetatik zenbatek jarraitzen duten irekita 2001ean (errepikapenak).
- 1999an ez zeudelarik, 1999-2001 aldian sortu eta 2001ean irekita (altak)² jarraitzen dutenak.

Aipatu oinarrizko ezaugarriei dagokienez, honetan aurkezten dugun laburpena hiru kapitulutan egituratu dugu:

- Lehenengo kapituluak –"Proiektuaren markoa"- bi alditan banatu ditu negoziazio kolektiboaren egiturari buruzko mapako emaitzak: bata, 1997-1999 bitartekoa eta bestea 1999-2001 bitartekoa; zenbait kasutan, gainera, aldi horietara 1995etik honako erreferentzia puntualak gehitu dira. Guzti horietan, batez ere, establezimenduen eta sektore pribatuko enpleguaren eboluzioa aztertzen da, burututako kategorizazio desberdinetan jarduera sektorean, establezimenduen tamaina, eta abar. Zentzu horretan, aipagarri gertatzen da lan honetan aurkezten diren zenbatekoak sektore pribatukoak izanik Gizarte Segurantzaren kotizazio erregimen orokorrera lotutako langile-multzoiari (kapitulu honetan ez da sektore publikoaren –Proiektuaren markoa- aipamenik egiten) buruzkoak direla.

Bestalde, argitu beharra dugu kapitulu honetan erabilitako alta eta bajak kontzeptua estatistikaren³ zentzuan erabiltzen dela, eta Lan Harremanen Kontseiluaren enpresa-zerrendan dagoen informazioari buruzko altak eta bajak irizpidearekin bat datoirela. Enpresa-zerrenda horretan sektore pribatuko establezimenduak eta horiek sortutako soldatapeko enpleguak jaso dira, salbu arrantza-sektorekoak eta etxeke zerbitzuen sektorearekin zerikusi duen pertsonala, sektore horiek beren jardueraren berezitasunagatik enpresa-zerrenda horretatik⁴ kanpo gelditzen baitira.

2 Zentzu horretan, esan beharra dago, metodologiaren arazoengatik eta aurreko edizioetan bezala, 1999az geroztik sortu eta 2001 baino lehen desagertu diren enpresak ez direla kontuan izan.

3 Argibide gisa bada ere, adierazi behar da bi enpresa elkartu eta hirugarren enpresa sortzen denean, jatorrizkoak bestelakoa, alegia, bi baja eta alta bat konputatu direla gure txosten honetan.

4 Horrela zehaztu diren zenbatekoek LHKko fitxategitik jasotako oinarrizko informazioa baino ez dute ematen; hortaz ez dira kontuan hartu zenbait enpresentzat, aipatu LHK berak emandako informazioarekin bat, gainontzeko azterketetan sartutako aldaketa puntualak.

- Bigarren kapituluan –"Emaitzen laburpena"- zenbait azterketa-eremuei buruz (jar-duera arautuak/ez arautuak; hitzarmen eguneratuak/ez eguneratuak; sektoreko negoziazioa/enpresako negoziazioa; Estatu mailakoak/EAE mailakoak, eta abar) lortutako emaitzarik nagusienak eskaintzen dira laburbildurik, eta horiek gainera 1999. urtearekiko prozesu dinamiko batean kokatzen dira.
- Hirugarren kapitulua –"Informazio osagarria"- honako ataletan banatu da:
 - "Negoiazio kolektiborako eremuen bilduma". Atal honetan laburpen/deskribapena eskaintzen da, EAEn dauden erregulazio-markoen zerrendarena, lurraldez lurralde egituraturik eta eragin-eremuaren arabera.
 - "Negoiazio kolektiboaren egituraketa mapa". Atal honetan enpresa eta enplegu-multzoari buruzko zenbateko nagusiak eskaintzen dira, horietako bakoitzari dagokion hitzarmenaren arabera. Atal honetan jaso dira, halaber, hitzarmen bakoitzari dagokion aplikazio-eremuaren xehetasunak.
 - Estatistikazko eranskina, EAEn aplikatzen diren (Estatu mailakoak, lurraldekoak, erkidegokoak eta tokikoak) sektoreko hitzarmen eguneratuez erregulatzen diren enpresa eta enpleguen xehetasunak ematen dira.

1999-2001 bitarteko aldiari dagozkion zifren eboluzioa hobeto ulertu ahal izateko, aipatu beharra dago, edizio honetan aurkeztu diren establezimendu eta enplegu zifrak otsailean segurantzaren sozialeko erregimena orokorrean zeuden soldatepeko langileei buruzkoak direla; 1999 urtekoak, uztailari dagozkionak izanik.

1. kapituluu
Proiektuaren markoa


Lehen atal honetan, sektore pribatuko enpresaren bilbeak eta enpleguaren egiturak 1999tik 2001era izan duten bilakaera jaso da, hiru azpiatal berezietan egituraturik:

- Horietako aurrenean, enpresa-dinamikari buruzko zenbaki nagusiak jaso dira, enpresa-establezimenduek eta enpleguek izan duten bilakaerei begira.
- Bigarrenean, bilakaera horren xehetasunak aztertzen dira, establezimenduaren tamainaren arabera eta zenbait enplegu-sailen estratifikazioaren arabera (enplegu-tarteak).
- Azkenik, hirugarrenean, azterketa bat egin da jarduera-sektoreka eta azpisektoreka.

1.1. SEKTORE PRIBATUKO ENPRESA-BILBEAREN BILAKAERA 1999 2001 BITARTEKOAN

1999-2001eko biurtekoaren ezaugarri izan dira hazkunde-tasa esanguratsuak, bai establezimendu-kopuruari dagokionez bai horiek sortutako enpleguari dagokionez, aurreko biurtekoan baino txikiagoak izan badira ere. Hortaz, EAEko enpresa-bilbean hazkunde-erritmoaren nolabaiteko moteltzea ikusi da aurreko biurtekoarekin alderatuz, batez ere enpleguaren sorkuntzari dagokionez.

1.1. grafikoa ESTABLEZIMENDU ETA ENPLEGUAREN HAZKUNDEAREN BILAKAERA (BIURTEKO HAZKUNDE TASAK)




Establezimendu-kopuruaren hazkunde-tasa EAEn %4,2koa izan da, aurreko aldian %5,9koa izan bazen ere. Enplegua ordea %6,8 hazi da, hau da, aurreko biurteko tasa –%14,7..- baino askoz ere txikiagoa.

Hazkunde-erritmo hori txikiagoa izanik ere, bilakaera positibo horrek aukera eman du aurreko aldiko hazkunde nabarmena finkatzeko. Hala, 2001. urtean enpresa-bilbea 62.274 establezimenduz eratzen da –1999. urtean baino 2.533 establezimendu gehiago-; eta establezimendu horiek guztiek 539.049 enplegu dute guztira, hau da, 1999. urtean baino 34.439 enplegu gehiago.


Lurraldearen azterketari dagokionez, emaitzak guztiz desberdinak ikusten dira, establezimendu-kopuruaren bilakaeran oinarrituz begiratzen badugu edo enpleguaren sorkuntzan oinarrituz begiratzen badugu. Hartara, establezimendu-kopuruan oinarrituz, Bizkaiak aurreko biurtekoan erakutsi zuen ildo berean jarraitzen du, gainontzeko lurraldeetakoekin alderatuz hazkunde-tasa handiagoekin– %5,0 Bizkaian eta %3,5 Gipuzkoan eta %3,4 Araban.

1.2. grafikoa ESTABLEZIMENDU KOPURUAREN BILAKAERA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. 1997-2001. (BIURTEKO HAZKUNDE TASAK)



Arabaren ordea, enpleguaren bilakaerak gainontzeko lurraldeek baino hazkunde-erritmo handiagoa erakusten du $-\%7,8$; beste bi lurraldeetako hazkunde-tasak antzekoak direnean: Bizkaia $\%6,7$ eta Gipuzkoa $\%6,6$.

1.3. grafikoa ENPLEGU KOPURUAREN BILAKAERA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. 1997-2001. (BIURTEKO HAZKUNDE TASAK)



1.1.1. Establezimenduen dinamika. 1999-2001.

Ondoren, establezimendu-multzoak aipatu aldian erakutsi duen dinamikari buruzko ikuspegi orokor bat eman nahi dugu, bai horiek aipatu aldiaren barruan izan duten bilakaera netoarena bai aldi horren barruan gertatu diren alta eta bajena. Horretarako, lehenbizi EAE osorako dinamika erakutsiko dugu, eta ondoren lurralde historiko bakoitza aztertuko dugu banan banan.

A. Establezimenduak sortzen dituen enpresa-dinamikaren gutxitzea


Aztertzen ari garen biurtekoaren ezaugarria da establezimendu berriak sortzeko enpresa-dinamikak behera egin duela, biurteko horretan establezimendu berrien sorkuntzari dagokionez. Dinamismoaren beherakada hori ez da mamitu bakarrik 1999tik 2001era sortutako establezimendu netoen kopuruak behera egitean, baita zenbateko neto hori lortzeko sortu eta itxi diren establezimenduen kopuruak behera egitean ere.

1.1. taula ENPRESA BILBEAREN LURRALDE EGITURA 1997AN, 1999AN ETA 2001EAN. 1999 2001 ALDIKO ALTA ETA BAJEN DINAMIKA.

	ESTABLEZIMENDUAK			99-01 ALDIKO GORABEHERAK			
	1997	1999	2001	EMAITZAK ⁵	ALTAK	BAJAK	
Araba	8.979	9.203	9.512	309	3,4	2.016	1.707
Bizkaia	27.885	30.156	31.657	1.501	5,0	7.075	5.574
Gipuzkoa	19.571	20.382	21.105	723	3,5	4.815	4.092
EAE	56.435	59.741	62.274	2.533	4,2	13.906	11.373

EAE osotara harturik, 1999aren eta 2001aren artean %23,3 establezimendu berri sortu dira –altak- 1999an zeudenekiko, eta itxi direnak %19 dira. Termino netoetan adieraziz, guztira 2.533 establezimendu berri sortu dira, hots, 1999an baino %4,2 gehiago.

1.4. grafikoa ENPRESA ESTABLEZIMENDUEN ALTAK ETA BAJAK EAE N 1997 1999 ETA 1999 2001 ALDIETAN




⁵ Emaizak edo saldoak (altak ken bajak) 1997an irekita zeuden establezimendu-kopuruaren arabera adierazten duen aldaketa erakusten du portzentajeen zutabeak.

Horrela, 1999-2001 bitartekoan 2.533 establezimendu neto sortzeko –aurreko biurtekoan baino %23,4 gutxiago-, alta eta baje kopuru askoz ere txikiagoa eman da:

- 199-2001 bitartean gertatu diren altak guztira 13.906 izan dira, hau da, aurreko biurtekoan gertatu ziren 21.156 alta haiek baino %34,2 gutxiago.
- Aldi honetako bajak, ordea, 11.373 izan dira guztira, hots, aurreko aldi gertatu ziren 17.850 bajak baino %36,3 gutxiago.

1.5. grafikoa 1995 ETA 2001 BITARTEKO ESTABLEZIMENDUEN ALTA ETA BAJEN PISU ERLATIBOA (BIURTEKOAREN HASIERAKO ZENBATEKOAREKIKO %)




Hortaz, erregistratutako bilakaeraren profila gehiago hurbiltzen da 1995-1997 biurtekora, aldi horretan erregistratutako alta eta bajei buruzko dinamismo txikiagoari dagokionez –17.345 alta eta 13.564 baja 1995-1997ko bitartekoan; hala bada, 1997-1999ko aldia azken urteotako enpresa-dinamismorik handienekotzat jo daiteke.

B. Bizkaiko enpresa-bilbeak, beste bi herrialdeekin alderatuz, hazkunde handiagoko joerarekin jarraitzen du

Lurraldeez lurraldeko analisiak erakusten du Bizkaia dela establezimendu-kopuruari dagokionez hazkunde-tasarik handiena -%5,0- erakusten duen lurraldea gainontzeko lurraldeekin alderatuz –Gipuzkoak %3,5 eta Arabak %3,4.

Beraz, Bizkaia gainontzeko lurraldeekiko hazkunde-tasarik handiena erakusten jarraitzen du aurreko biurtekoan gertatu zen bezala. Hala ere, alde hori argi eta garbi apalagoa da aurreko biurtekoan baino, apenas 1,5 puntu ehunekotan, 1997-1999ko biurtekoan 4 puntuko aldea egon bazen ere.

1.6. grafikoa ESTABLEZIMENDU KOPURUAREN BILAKAERA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA (BIURTEKO HAZKUNDE TASAK)



Lurralde bakoitzeko bilakaera taxutu duen establezimenduen alta eta bajeen dinamika antzekoa da hiru lurraldeetan, Arabako alta eta bajeen portzentaje erlatiboa zertxobait txikiagoa bada ere, ondoko taulan ikus daitekeen bezala.

1.2. taula ALTA ETA BAJEN INDIZEA 1999 2001EKO ALDIAN ETA 1999KO ESTABLEZIMENDU KOPURUARI DAGOKIONEZ.


ALDIKO GORABEHERAK ⁶				
	1999	EMAITZA	ALTAK	BAJAK
Araba	9.203	%3,4	%21,9	%18,5
Bizkaia	30.156	%5,0	%23,5	%18,5
Gipuzkoa	20.382	%3,5	%23,6	%20,1
EAE	59.741	%4,2	%23,3	%19,0

Enpresa-dinamikaren lurraldeko ikuspegi hau lehentxeago EAE osorako egin den analisi konparatiboa indartzera dator. Hartara, hiru lurraldeak osotara hartuz biurtekoan izan diren alta eta baje kopurua nahiko txikiagoa izan da aurreko aldiarekin alderatuz.

Hala, gauden biurtekoan alta eta baje pisu espezifikoak hiru lurraldeak batera hartuz, hurrenez hurren, %23aren eta %19aren inguruan kokatu da, 1997-1999 biurtekoan hazkunde-tasak nabarmen handiagoak izan baziren ere: altak, %37 inguru eta bajak, %32 inguru.

⁶ 2001eko alden, baje eta emaitzen zifra absolutuak zati 1999an zabalik zeuden enpresak guztira bider 100.

1.7. grafikoa 1999 2001 BITARTEKO ALTAK ETA BAJAK LURRALDE HISTORIKOKA (PISU ERLATIBOA 1999KO GUZTIZKO ESTABLEZIMENDU KOPURUARI DAGOKIONEZ)



Lurraldearen pisu erlatiboaren terminoetan hitz eginez, EAE osoari dagokionean, Bizkaia portzentaje erlatibo handienak erakusten ditu, logikoaenez eta EAEn duen pisu espezifikiko handiagorekin bat. Horixe ikus dezakegu ondoko taulan

1.3. taula 1997, 1999 ETA 2001EAN ZEUDEN ESTABLEZIMENDU GUZTIEN LURRALDE EGITURA. 1999 2001 BITARTEKO ALTA ETA BAJEN PORTZENTAJEAK.

	ESTABLEZIMENDUAK			99-01 ALDIKO GORABEHERAK		
	1997	1999	2001	EMAITZA	ALTAK	BAJAK
Araba	%15,9	%15,4	%15,3	%12,2	%14,5	%15,0
Bizkaia	%49,4	%50,5	%50,8	%59,3	%50,9	%49,0
Gipuzkoa	%34,7	%34,1	%33,9	%28,5	%34,6	%36,0
EAE	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0

Establezimendu berrien sorkuntza netoari dagokionez, aldi horretan ikusi den bilakaerak Bizkaiko enpresa-bilbea areagotzea ekarri du, doi-doi bada ere, Gipuzkoan gertatu denaren kontra.

1.1.2. Enpleguari dagokion dinamika

Enpleguaren hazkunde-tasa berriro establezimendu-kopurua baino handiagoa bada ere, diferentzia aurreko biurtekoan lortu zena baino askoz ere txikiagoa da. Hala, aipatu aldian ikus daitekeen hazkundearen moteltzea, gehienbat askoz ere nabarmenagoa izan da, enpleguaren sorkuntzari dagokionez, establezimendu berrien sorkuntzari baino.


Lehen azpiatalean modu agregatuan aztertu da dinamika horren egoera EAEn; ondorengo atalean, ordea, dinamika hori berriaz lurralde-ikuspegitik aztertuko da.

A. 1999an zeuden establezimenduetan oinarritutako enpleguaren hazkundera

1999-2001eko biurtekoan enplegu-kopuruaren hazkundera, alde batetik, sortzen den enplegu-kopuruaren eta enpresak sortze-desegite dinamikaren ondorioz desegiten diren enpleguen arteko diferentzian du oinarria; eta bestetik, 1999tik irekita dauden enpresa-establezimenduetan 1999-2001 bitartekoan enpresetako langileriak izan duen aldaketan oinarritzen da.

Era horretara, 1999-2001 bitartekoan sortutako 34.439 enplegu netoak 1999an irekita zeuden 22.879 enpresek sortutakoak dira; aldi horretan ireki eta itxi diren establezimendu berrien dinamikak, ordea, 11.560 enplegu netoko saldo positiboa erakusten du.

1.8. grafikoa 1997 1999 ETA 1999 2001 BITARTEKOETAN SOLDATAKO ENPLEGUAREN ALTA ETA BAJAK EAE N⁷




Beraz, biurtekoan enpleguak izan duen hazkundera batez ere 1999. urtean irekita zeuden establezimenduetako plantiletan oinarritu da. Hala, aipatu biurtekoan sortutako enplegu netoaren %66,4 establezimendu horietakoa da; establezimendu berrietan sortutakoa ordea, %33,6.

EAEko egitura ekonomikoaren bilakaerak erakutsi duen profila aurreko biurtekoan ikusi zenaren antzekoa da: joera finko eta egonkorra. Hala, hiru enplegutik bi jada lehendik irekita zeuden establezimenduetako plantiletan izan diren hazkunderakoak dira; 1995-1997ko biurtekoan, ordea, alta eta bajen bidez sortutako enplegu erlatiboaren garrantzia askoz ere handiago zen.

⁷ Altak: 1999-2001 aldian sortutako establezimendu berrietan sortutako enplegua.
Bajak: 1999an irekita egon eta 1999-2001 aldian zehar itxi ziren establezimenduetako enplegua.
Errepikatuak: 1999an eta 2001ean zeuden plantilen arteko diferentzia (positiboa edo negatiboa), aldi horretan zehar irekita egon diren establezimenduetan: 2001ean establezimenduetako enplegua ken 1999an establezimenduetako enplegua.
Emaiza: Altak ken bajak gehi errepikatuak.

1.9. grafikoa ENPLEGUAREN HAZKUNDEAREN JATORRIA 1995 2001 BITARTEKOAN (ESTABLEZIMENDUETAKO PLANTILEN BIDEZ ETA ALTA ETA BAJEN BIDEZ SORTUTAKO ENPLEGU NETOARI BURUZKO PISU ERLATIBOA)




Horrela, daba, oso adierazgarria da ikustea establezimenduak ireki eta ixtearen ondorioz sortutako enpleguaren garrantzi erlatiboa handiagoa izan dela –aipatu ehuneko 4 puntu horiek- aurreko bitartekoan baino, nahiz eta bitarteko horretan enpresaren dinamismoa txikiagoa izan –termino erlatiboetan, alegia.

	IREKITZE IXTEAK		LEHENDIK DAUDEN PLANTILEN GEHIKUNTZA		ENPLEGUAREN HAZKUNDEA
Araba	1.943	+	4.537	=	6.480
Bizkaia	6.565	+	10.821	=	17.386
Gipuzkoa	3.052	+	7.521	=	10.573
EAE	11.560	+	22.879	=	34.439

B. Bitarteko honetan enplegu-sorkuntzaren azterketa lurraldez lurralde

Araba da 1999-2001 bitartekoan enplegu-hazkunderik handiena izan duen lurraldea, hots, EAE osoan eta gainontzeko lurraldeetan baino handiagoa: Araban enpleguaren hazkundera-tasa %7,8koa izan da, Bizkaian %6,7koa eta Gipuzkoan %6,6koa. Sortutako enplegu netoaren saldoa beraz honakoa izan da: 6.480 enplegu Araban, 17.386 Bizkaian eta 10.573 Gipuzkoan.

1.10. grafikoa SOLDATAKO ENPLEGUAREN BILAKAERA 1997. URTETIK HONA LURRALDEZ LURRALDE



1.4. taula SOLDATAKO ENPLEGUAREN EGITURA 1997., 1999. ETA 2001. URTEETAN LURRALDEZ LURRALDE. 1999-2001 BITARTEKO ALTAK ETA BAJAK.

	ENPLEGUAK			99-01 ALDIKO GORABEHERAK				
	1997	1999	2001	EMAITZA (a-b+c)		ALTAK ^(a)	BAJAK ^(b)	ERREP ^(c)
Araba	75.134	83.573	90.053	6.480	%7,8	9.217	7.274	4.537
Bizkaia	223.842	259.781	277.167	17.386	%6,7	31.122	24.557	10.821
Gipuzkoa	140.898	161.256	171.829	10.573	%6,6	17.086	14.034	7.521
EAE	439.874	504.610	539.049	34.439	%6,8	57.425	45.865	22.879


Lurraldeen bilakaera-profil hori aurreko biurtekoarekin alderatzen badugu, aldaketa bat ikusiko dugu 1997 eta 1999 bitartekoan lortu zen joeran; eta aldaketa horren ezaugarri nabarmenena da –hiru lurraldeek erakusten duten hazkunde-tasa txikiagoa kontuan izanik-, aurrerapenik gabeko urte batzuk igaro ondoren, Bizkaia erakusten duen hazkunde askoz ere handiagoa dela. Horixe ikus dezakegu ondoren datorren grafikoa.

(a) 1999-2001eko aldian sortutako establezimendu berriek sortu duten enplegua.

(b) 1999an irekita egon eta 1999-2001eko aldian itxi diren establezimenduetako enplegua.

(c) 1999 eta 2001. urteetan zeuden plantilen arteko diferentzia (positiboa edo negatiboa), bitarteko horretan irekita egon diren establezimenduetan: 1999ko establezimenduetako enplegua ken 2001eko establezimenduetako enplegua.

1.11. grafikoa ENPLEGUAREN HAZKUNDE TASAK 1995 2001 BITARTEKOAN, LURRALDEAK ELKARREKIN ALDERATUZ (HAZKUNDEAREN TASAK BIURTEKOKA)



Alabaina, enpleguaren hazkunde-tasak oso antzekoak dira elkarrekin; ondorioz, enpleguaren lurraldeko egitura, 1999-2001 biurteko honen bilakaeraren ondoren, 1999 urtekoaren berdintsua da. Araba da bakar-bakarrik EAEko enpleguarekiko pisu erlatiboa gehitzea lortu duen lurraldea: portzentajea harramen bat. Gipuzkoako lurraldean gertatu denaren kontra.

1.5. taula SOLDATAKO ENPLEGUAREN EGITURA 1997., 1999. ETA 2001. URTEETAN LURRALDEZ LURRALDE. 1999 2001 ALDIKO ALTA ETA BAJEN PORTZENTAJEAK.

	ENPLEGUAK			99-01 ALDIKO GORABEHERA			
	1997	1999	2001	EMAITZA	ALTAK	BAJAK	ERREP
Araba	%17,1	%16,6	%16,7	%18,8	%16,1	%15,9	%19,8
Bizkaia	%50,9	%51,4	%51,4	%50,5	%54,2	%53,5	%47,3
Gipuzkoa	%32,0	%32,0	%31,9	%30,7	%29,8	%30,6	%32,9
EAE	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0

Hiru lurraldeetan hazkundera gehienbat 1999tik irekita zeuden establezimenduetatik etorri da. Horrela, Arabako enpleguaren hazkunderaren %70 1999 irekita zeuden establezimenduetako plantilen gehikuntzan oinarritu da, eta ehunako hori Gipuzkoakoaren antzekoa da, %71,1, alegia.

Bizkaiko enpleguaren hazkunderari dagokionez, ordea, 1999. urtetik irekita dauden establezimenduek sortutako enpleguaren pisu erlatiboa txikiagoa izan da EAEko beste lurraldeetan baino: %62,2. Hortaz, establezimenduak ireki eta ixteagatik sortutako enplegu netoaren portzentajea handiagoa izan da, ondorengo taulan ikus dezakegunez.

1.6. taula 1999-2001 BITARTEKO ALTA ETA BAJEN INDIZEA 1999KO ENPLEGUAREKIKO

	ENPLEGUAK		ALDIKO GORABEHERA ⁸		
	1999	EMAITZA (a-b+c)	ALTAK ^(a)	BAJAK ^(b)	ERREP ^(c)
Araba	83.573	%7,8	%11,0	%8,7	%5,4
Bizkaia	259.781	%6,7	%12,0	%9,5	%4,2
Gipuzkoa	161.256	%6,6	%10,6	%8,7	%4,7
EAE	504.610	%6,8	%11,4	%9,1	%4,5

Lurraldez lurraldeko enplegu-sorkuntzaren profil hau aurreko bitartekoan ikusi dugun profilarri jarraipena ematera dator. Bitarteko horretan, Bizkaiak ere dinamismo askoz ere handiagoa erakusten zuen establezimenduak ireki eta ixtearen ondoriozko enplegu netoaren sorkuntzan, 1995. urtera arte Bizkaiko lurraldeak geldialdi erlatiboa ezagutu bazuen ere gainontzeko lurraldeekin alderatuz.

1.7. taula 1997-2001 BITARTEKO ENPLEGUAREN HAZKUNDEAREN JATORRIA LURRALDE HISTORIKOREN ARABERA (ESTABLEZIMENDUETAKO PLANTILEN HAZKUNDEAZ ETA ALTA ETA BAJAZ SORTUTAKO ENPLEGU NETOARI BURUZKO PISU ERLATIBOA)

Aldia	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa	
	Plan. gehik.	A/B	Plan. gehik.	A/B	Plan. gehik.	A/B
1997-1999	74,9	25,1	65,9	34,1	76,1	23,9
1999-2001	70,0	30,0	62,2	37,8	71,1	28,9

Plan. Gehik.: Denboraldian zehar irekiak iraun duten establezimenduetako langileen gehikuntza.

A/B: Denboraldian zehar establezimenduen sortze eta ixte prozesuaren eraginez, sotutako enplegua.

⁸ 2001eko alden, bajen eta emaitzen zifra absolutuak zati 1999an zabalik zeuden enpresak guztira bider 100.

(a) 1999-2001 bitartekoan sorturiko establezimendu berriek sortutako enplegua.

(b) 1999an zeuden eta 1999-2001 bitartekoan zehar desagertutako establezimenduetako enplegua.

(c) 1999an eta 2001ean zeuden plantilen arteko diferentzia (positiboa edo negatiboa), bitarte horretan zehar irekita mantendu diren establezimenduetan: 2001eko establezimenduetako enplegua ken 1999ko establezimenduetako enplegua.

1.2. SEKTORE PRIVATUKO ENPRESA-BILBEAREN BILAKAERA, ESTABLEZIMENDUEN TAMAINAREN ARABERA

Enpresa-bilbearen eta enplegu netoaren sorkuntza, oro har, positiboa izan da enplegu-sailen multzoan, nahiz eta hazkunde-erritmoa apalagoa izan aurreko aldiari dagokionez horietako bakoitzean.

Bitarteko honetan ezaugarriak adierazgarrietakoa izan da mikroenpresen -6 enplegutik beherakoak- garrantzi erlatiboaren gutxitze-joeraren trinkotasuna, lehen aldiz jada aurreko bitartekoan agertzen hasi zena. Enpresa-bilbeak, ordea, 1997. urtera arte xehatze-prozesu handiagoa erakutsi zuen.

Joera horrek bere hartan jarraitu du 1999-2001 bitartekoan zehar establezimendu txiki eta ertainen sailak erakutsi duen hazkunde erlatiboarekin paraleloan, aurrerago ikusiko dugunez.

Horrek guztiarekin, 2001ean eratu den enpresa-egitura 100 enplegutik gorako establezimendu handien -%1,1- kopuru murriztagoaz osatu da; esan beharra dago establezimendu handi horiek EAEko enplegu orokorraren portzentaje esanguratsua biltzen dutela: %31,1. Nolanahi ere, establezimendu handi horiek eta EAEko soldatiko enplegu osoaren %16,8ra doi-doi iristen diren mikroenpresen kopuru handi batek -5 enplegutik beherakoak, %74,1- elkarrekin partekatzen dute lurraldea.

1.2.1. Establezimenduen bilakaera enplegu-tartearen arabera

1999-2001 bitartekoan EAEko enpresa-bilbeak izan duen bilakaeraren ezaugarria izan da aurreko biurtekoan ikusi ahal izan zen joera mantentzea: enpresa txiki eta ertainen bilbearen hazkunde handiagoa: %7,5etik gorakoa 6 eta 100 enpleguen arteko establezimenduetan.

Bestalde, mikroenpresen multzoak -6 enplegu baino gutxiago- hazkunde txikiagoa erakutsi du: 1999. urtearekiko %1,5 3 enplegutik beherakoetan eta %6,7 3 enplegutik 5 enplegura bitartekoetan.

1999tik 2001era bitartean enpresa-bilbeak erakutsi duen bilakaera, establezimenduak irekitzen eta ixten izan den dinamismo txikiagoaren ondorioz etorri da, termino agregatuetan aurreko biurtekoarekin alderatuz gero: 1997-1999 bitartekoan 21.156 alta eta 17.850 baja, eta 1999-2001eko aldian, hurrenez hurren 13.906 eta 11.373.

1.8. taula ESTABLEZIMENDU MULTZOAREN EGITURA 1997AN, 1999AN ETA 2001EAN TAMAINAREN ARABERA. 1999 2001 BITARTEKO ALTA ETA BAJAK.

Enplegu-tarteak	ESTABLEZIMENDUAK			99-01 ALDIKO GORABEHERA		
	1997	1999	2001	EMAITZA ⁹	ALTAK	BAJAK
3tik behera	33.204	33.173	33.662	489	10.204	8.727
3tik 5era	10.327	11.682	12.469	787	2.023	1.458
6tik 10era	5.740	6.348	6.875	527	891	597
11tik 20ra	3.588	4.216	4.603	387	429	309
21etik 30era	1.311	1.590	1.723	133	140	91
31tik 50era	1.024	1.280	1.376	96	93	86
51tik 100era	721	848	912	64	75	60
101etik 250era	368	433	473	40	38	33
251tik 500era	107	122	124	2	8	7
500etik gora	45	49	57	8	5	5
GUZTIRA	56.435	59.741	62.274	2.533	13.906	11.373

Dinamismo txikiago hori erabat hedatu da enplegu-tarteen multzo osora. Hartara, aldi horretako alta eta baja guztiekiko termino erlatiboetan hitz eginez, enplegu-tarte bakoitzaren pisu erlatiboak aurreko biurtekoan jaso ziren antzeko mailetan jarraitzen dute.

1.9. taula ENPLEGUKO ESTABLEZIMENDU MULTZOAREN EGITURA 1997AN, 1999AN ETA 2001EAN ENPRESA TAMAINAREN ARABERA. 1999 2001 BITARTEKO ALTA ETA BAJEN PORTZENTAJEAK.

Enplegu-tarteak	ESTABLEZIMENDUAK			99-01 ALDIKO GORABEHERA		
	1997	1999	2001	EMAITZA ¹⁰	ALTAK	BAJAK
3tik behera	%58,8	%55,5	%54,1	%19,3	%73,4	%76,7
3tik 5era	%18,3	%19,6	%20,0	%31,1	%14,5	%12,8
6tik 10era	%10,2	%10,6	%11,0	%20,8	%6,4	%5,2
11tik 20ra	%6,4	%7,1	%7,4	%15,3	%3,1	%2,7
21etik 30era	%2,3	%2,7	%2,8	%5,3	%1,0	%0,8
31tik 50era	%1,8	%2,1	%2,2	%3,8	%0,7	%0,8
51tik 100era	%1,3	%1,4	%1,5	%2,5	%0,5	%0,5
101etik 250era	%0,7	%0,7	%0,8	%1,6	%0,3	%0,3
251tik 500era	%0,2	%0,2	%0,2	%0,1	%0,1	%0,1
500etik gora	%0,1	%0,1	%0,1	%0,3	%0,0	%0,0
GUZTIRA	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0

9-10 Emaitzaren zutabeak 1999tik eta 2001era tarte bakoitzean zegoen enpresen kopuruaren aldea jasotzen du. Zenbaki hau ez dagokio zehazki alten (enpresak irekitzea) eta bajen (enpresak ixtea) zutabeen arteko kenketari, zeren 1999an zabalik zeuden eta 2001ean zabalik zirauten enpresa batzuk, gaur egun enplegu-tarte jakin batean baitaude eta 1999an beste batean baitzeuden, epe horretan beren neurria aldatu zelako.

Beraz, 2001ean zeuden establezimenduen tamainaren arabera enpresa-egiturak ez du desberdintasun esanguratsurik 1999an zegoenarekin. Bakarrik, mikroenpresen garrantzi erlatiboa murrizten da modu apalean bada ere; tamaina ertaineko establezimenduen, ordea, areagotu egiten da.

Era horretara, 2001. urtean establezimenduen %74,1 5 enplegu edo gutxiagoko enpresa-tartean kokatzen da, hots, 1999an erakusten zuten pisu erlatiboaren azpitik -%75,1-, asko ez bada ere. Bestalde, 5 enplegutik gorako establezimenduek areagotu egin dute beren pisu erlatiboa, batez ere 6 enplegu eta 20 bitartean daudenek. Hala, 1999. urtean 6 enplegutik 20 enplegura bitarteko enpresek establezimenduen %17,7 baziren, 2001. urtean ezaugarri horietako enpresak establezimendu guztien %18,4a suposatzen zuten.

1.2.2. Enpleguaren bilakaera enplegu-tartearen arabera.

Biurtekoren barruan enpleguak izan duen hazkunde nahiko homogeneoa izan da enplegu-tarte guztietan; saldoa horietako bakoitzean positiboa izan da, nahiz eta proportzioak zerbait desberdinak izan batetik bestera.

Oro har, hazkunde-tasak aurreko biurtekoan ikusitakoak baino txikiagoak izan dira, modu nabarmenean gainera. Tamaina ertaineko establezimenduetan hazkunde-tasarik handienak gehienbat 11 enplegu eta 30 enplegu bitartean dabiltzanak izan dira, hala nola tamaina handigoadunetan -50-250 enplegu bitartekoetan.

Horrela, mikroenpresetako soldatiko enpleguaren hazkundeak txikiagorako joerarekin jarraitzen du eta EAEko enpresa txiki eta ertainetan enplegu gehiago sortzeko joerarekin, aurreko biurtekoan ikusi zenaren antzera.

1.10. taula SOLDATAKO ENPLEGUAREN EGITURA 1997AN, 1999AN ETA 2001EAN TAMAINAREN ARABERA. 1999-2001 BITARTEKO ALTA ETA BAJAK¹¹

Enplegu-tartea	ENPLEGUAK			99-01 ALDIKO GORABEHERA			
	1997	1999(a)	2001(b)	EMAITZA (b-a)	ALTAK (c)	BAJAK (d)	ERREP. (e)
3tik behera	41.976	42.702	43.540	838	12.312	10.255	-1.219
3tik 5era	38.562	43.811	46.809	2.998	7.480	5.383	901
6tik 10era	43.520	48.044	51.951	3.907	6.660	4.478	1.725
11tik 20ra	51.916	61.236	66.760	5.524	6.058	4.596	4.062
21etik 30era	32.452	39.529	42.930	3.401	3.505	2.234	2.130
31tik 50era	39.868	50.258	53.981	3.723	3.597	3.318	3.444
51tik 100era	50.648	59.959	64.911	4.952	5.361	4.232	3.823
101etik 250era	56.157	67.280	73.469	6.189	6.170	5.607	5.626
251tik 500era	36.064	40.926	41.079	153	2.699	2.352	-194
500etik gora	48.711	50.865	53.619	2.754	3.583	3.410	2.581
GUZTIRA	439.874	504.610	539.049	34.439	57.425	45.865	22.879

11 Emaizaren zutabeak 1999tik eta 2001era tarte bakoitzean zegoen enpresen kopuruaren aldea jasotzen du. Zenbaki hau ez dagokio zehazki alden (enpresak irekitzea) eta bajen (enpresak ixtea) zutabeen arteko kenketari, zeren 1999an zabalik zeuden eta 2001ean zabalik zirauten enpresa batzuk, gaur egun enplegu-tarte jakin batean baitaude eta 1999an beste batean baitzeuden, epe horretan beren neurria aldatu zelako.

(c) 1999-2001 bitartekoan sortutako establezimendu berrietan sortutako enplegua.

(d) 1999an irekita egon eta 1999-2001 bitartekoan zehar itxi ziren establezimenduetako enplegua.

(e) 1999an eta 2001ean zeuden plantilen arteko diferentzia (positiboa edo negatiboa), 1999an "i" enplegu-tartekoak ziren establezimenduetan eta bitarte horretan zehar irekita mantendu diren establezimenduetan: 2001eko establezimenduetako enplegua ken 1999ko establezimenduetako enplegua

Aldi honetan ikus daitekeen bilakaera hau, bai establezimenduak irekitzearen eta ixtearen ondorioz sortzen den enpleguari dagokionez, bai enplegu-tarteen eta establezimenduen tamaina desberdineko multzo osoan 1999.aren eta 2001.aren tartean irekita jarraitzen duen establezimenduek sortutako enpleguari dagokionez, enpresa-dinamika txikiagoa izatearen ondorioa da.

Aurreko aldietan gertatzen zenaren antzera, enplegua sortze eta desegiteko prozesua azkarragoa da mikroenpresen kolektiboaren barruan, esan nahi da enpresa-egituraren multzoan duen pisu erlatiboarekiko. Enpresa-tarte horretan gertatu da bakarrik enplegu galera adierazgarria 1999 eta 2001 bitartean irekita zeuden establezimenduetan.

1.11. taula SOLDATAKO ENPLEGUAREN EGITURA 1997AN, 1999AN ETA 2001EAN TAMAINAREN ARABERA. 1999-2001 BITARTEKO ALTA ETA BAJEN PORTZENTAJEAK.

Enplegu-tartea	ENPLEGUAK			99-01 ALDIKO GORABEHERA			
	1997	1999	2001	EMAITZA ¹²	ALTAK	BAJAK	ERREP.
3tik behera	%9,5	%8,5	%8,1	%2,4	%21,4	%22,4	%-5,3
3tik 5era	%8,8	%8,7	%8,7	%8,7	%13,0	%11,7	%3,9
6tik 10era	%9,9	%9,5	%9,6	%11,3	%11,6	%9,8	%7,5
11tik 20ra	%11,8	%12,1	%12,4	%16,0	%10,5	%10,0	%17,8
21etik 30era	%7,4	%7,8	%8,0	%9,9	%6,1	%4,9	%9,3
31tik 50era	%9,1	%10,0	%10,0	%10,8	%6,3	%7,2	%15,1
51tik 100era	%11,5	%11,9	%12,0	%14,4	%9,3	%9,2	%16,7
101etik 250era	%12,8	%13,3	%13,6	%18,0	%10,7	%12,2	%24,6
251tik 500era	%8,2	%8,1	%7,6	%0,4	%4,7	%5,1	%-0,8
500etik gora	%11,1	%10,1	%10,0	%8,0	%6,2	%7,4	%11,3
TOTAL	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0	%100	%100,0	%100,0

Plantilaren gehikuntza bidez agregatutako enpleguaren garrantzia txikiagoa izanik ere, enplegu-tarte batzuetan establezimenduak irekitze-ixtean oinarritzen den enpresa-dinamikaren bidez sortutako enplegua handiagoa gertatzen da. Enpresa-tarte horiek batez ere bi urte horietan enplegu-hazkunde txikiagoa izan dutenekin bat datoz, hau da, mikroenpresekin -5 enplegutik beherakoak- eta 6 enplegutik 10 enplegu bitartekoak direnekin eta 251-500 enplegu bitartean dabilzanekin.

Bilakaera horren ondoriozko enpresa-egitura aldatu egin da 1999. eta 2001. urteen bitartekoan, arinki bada ere. Beraz, mikroenpresetako enpleguaren pisu erlatiboak, EAEko enplegu osoarekikoak, behera egin du: 1999an %17,2koa zena %16,8ra iritsi da 2001ean.

Bestalde, 6 eta 30 enplegu bitarteko enplegu-tarteek beren pisu erlatiboaren portzentajea 5 hamarrenean areagotu dute biurteko honetan; hartara, 1999an enpleguaren %29,4ra iristen baziren, 2001ean %30,0ra iristen dira.

12 Emaitzaren zutabeak 1999tik 2001erako enplegu-tarte bakoitzaren zegoen enpresa-kopuruaren aldea jasotzen du. Zenbaki hori ez dagokio alden (enpresak irekitzea) eta bajen (enpresak ixtea) zutebearen arteko kenketari, zeren 1999an irekita zeuden eta 2001ean irekita dirauten enpresa batzuk, gaur egun enplegu-tarte jakin batean baitaude eta 1999an beste batean baitzeuden, epe horretan beren neurria aldatu zelako.

1.3. ENPRESA-BILBEAREN BILAKAERA JARDUERA-SEKTOREAREN ARABERA SEKTORE PRIBATUKO ENPRESETAN.

1999-2001eko bitartean enpresa-bilbeak izan duen bilakaeraren analisi sektoriala bestelakoa da enpresa-establezimenduen bilakaeraren ikuspegitik begiratzuz edo enpleguaren sorkuntza mailetatik begiratzuz.

Horrela, establezimendu-kopuruari begira industriak argi eta garbi zerbitzuen sektoreak baino hazkunde handiagoa erakusten badu ere, enpleguari dagokionez, hazkundera industrian eta zerbitzuen sektoreko establezimenduetan berdintsua da.

Epe luzeagotik ikus daitezkeen joeren ikuspegitik begiratzuz, badirudi sektoreetako dinamikan joerak aldatzen hasi direla –zehazki, EAEko produkzio-bilbea hirugarren sektorera bihurtzeko prozesua moteltzea.

Aldaketa hori aurrerago ere ikusten zen: lehenbizi 1997-1999 biurtekoan enpresa-egituraren bilakaerak erakusten zuen joeraren aldaketan –industria-establezimenduen hazkunde handiagoa-, eta gero, 1999-2001eko bitartean enpleguaren sorkuntzan erakutsi zuen eraginean.

Modu horretara, 1999.aren eta 2001.aren artean, industriako enpresa-establezimenduen bilbeak 1997. urteaz geroztik erakusten zuen hazkunderako joera baino handiagoa erakusten jarraitzen du. Hala ere, sortutako enpleguari dagokionez, hirugarren sektoreak enpleguaren sorkuntzari buruz 1999. urtera arte erakutsi zuen hazkunde handiagorako joeran aldaketa ikusten da. Ondorioz, 1999. urtera arte hirugarren sektorera bihurtzeko ikusi zen joeraren erritmo bizi horrek badirudi gelditu egin dela¹³ 1999-2001 bitartekoan.

1.3.1. Establezimenduen dinamika jarduera sektoreen arabera.

Aurreko biurtekoan gertatzen zenaren bezala, industriak zerbitzuek baino jokabide askoz ere dinamikoagoa erakutsi du EAEn establezimendu berriak sortzeko eginkizunean. Bestalde, eraikuntzak jokabide negatiboa erakutsi du 1999. urteari dagokionez, hau da, %4,0ko gutxitzea aipatu urtean erakutsi zuen jokaerarekiko.

1.12. taula ESTABLEZIMENDU MULTZOAREN EGITURA SEKTOREZ SEKTORE 1997AN, 1999AN ETA 2001EAN. 1999 2001 ALDIKO ALTAK ETA BAJAK.

Sektorea	ESTABLEZIMENDUAK			99-01 ALDIKO GORABEHERA		
	1997	1999	2001	EMAITZA	ALTAK	BAJAK
Nekazar., abeltz. eta basog.	141	149	199	50	58	8
Energia eta ura	85	82	113	31	32	1
Eraikuntza	5.943	6.224	5.973	-251	1.717	1.968
Industria	11.946	13.143	14.481	1.338	2.684	1.346
Zerbitzuak	38.320	40.143	41.508	1.365	9.415	8.050
GUZTIRA	56.435	59.741	62.274	2.533	13.906	11.373

¹³ 1999ko edizioan hiru sektoreko bihurtzeko prozesu honetan geldotze-sintoma batzuk atzeman ziren, eta edizio honetan berrets egin dira horiek.


Horrela, 1999aren eta 2001aren artean industria-establezimenduen kopuruak hirukoiztu egiten du zerbitzuen sektoreko establezimenduen kopurua: %10,2 industria-establezimenduak eta %3,4 zerbitzuetakoak.

Hazkunde-tasa hauek aurreko biurtekoan ikusitako antzeko mailak erakusten dituzte: %10,0 industrian eta %4,7 zerbitzuetan.

1.13. taula ESTABLEZIMENDUEN EGITURA SEKTOREZ SEKTORE 1997AN, 1999AN ETA 2001EAN. 1999 2001 ALDIKO ALTAK ETA BAJAK.

Sektorea	ESTABLEZIMENDUAK			99-01 ALDIKO GORABEHERA		
	1997	1999	2001	EMAITZA	ALTAK	BAJAK
Nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza	141	149	199	50	58	8
Energia eta ura	85	82	113	31	32	1
Eraikuntza eta eraik.ko materialak	5.943	6.224	5.973	-251	1.717	1.968
Industria kimikoa	992	962	936	-26	119	145
Ind. sideromet. eta transformatzailea	7.510	8.530	9.671	1.141	1.869	728
Elikadura industria	967	1.019	1.152	133	205	72
Ehung., larrug., oinetakoak eta arropag.	342	374	395	21	78	57
Papergintza eta arte grafikoak	817	838	859	21	143	122
Zur, kortxo eta altzarien industria	1.318	1.420	1.468	48	270	222
Merkataritza	15.131	15.449	15.122	-327	3.250	3.577
Ostalaritza	5.637	5.588	5.921	333	1.617	1.284
Garraioak	2.725	3.041	3.331	290	895	605
Komunikabideak	36	67	92	25	34	9
Banka eta aseguruak	928	958	993	35	174	139
Aholkularitza eta administrazio zerbitzuak	5.228	5.887	6.558	671	1608	937
Saneamendua eta garbikuntza	849	722	772	50	245	195
Hezkuntza	1.341	1.422	1.472	50	263	213
Osasuna eta gizarte-laguntza	1.912	2.080	2.308	228	371	143
Kultura, kirol eta bestelako zerbitzuak	1.128	1.016	831	-185	202	387
Zerbitzu pertsonalak	3.405	3.913	4.108	195	756	561
GUZTIRA	56.435	59.741	62.274	2.533	13.906	11.373


1.12. grafikoa INDUSTRIA ETA ZERBITZUETAKO ENPRESA ESTABLEZIMENDUEN KOPURUAREN BILAKAERA 1999 2001 ALDIAN. EAE.



Bestalde, eraikuntza nabarmena da joeraren aldaketa; hala, 1997aren eta 1999aren bitartekoan establezimenduen kopurua %4,7 hazi bazen, 1999aren eta 2001aren artean establezimenduak %4,0 hazi dira.

Ondorengo grafikoan ikus daitekeenez, 1995etik honako bilakaeraren profila aztertzerakoan, badirudi hirugarren sektoreko enpresa-bilbea geldialdi batera hurbiltzen hasi dela 1997. urteaz geroztik, eta industria-bilbea, ordea, urte hori ezkerreko hazten ari dela, modu nabarmenean gainera.

1.13. grafikoa ESTABLEZIMENDU KOPURUAREN BILAKAERA 1995AREN ETA 2001AREN BITARTEKOAN JARDUERA SEKTOREKA (HAZKUNDE TASAK BIURTEKOETAN)



Nahiz eta azken urteetako joera horrela izan, EAEko sektoreen egitura nagusitasun osoa erakusten jarraitzen du zerbitzuen sektoreak; horrela, bada, EAEko establezimenduen 3tik 2 -%66,7-hirugarren sektoreko jardueran ari da.

Industria-establezimenduak 1997an %21,2 izatetik %23,3 izatera iritsi dira 2001ean; eraikuntza, ordea, %10,5 ziren 1999an eta %9,6 2001ean.

1.14. taula ESTABLEZIMENDU MULTZOAREN EGITURA SEKTOREKA 1997AN, 1999AN ETA 2001EAN. 1999 2001 ALDIKO ALTA ETA BAJEN PORTZENTAJEA.

Sektorea	ESTABLEZIMENDUAK			99-01 ALDIKO GORABEHERA		
	1997	1999	2001	EMAITZA	ALTAK	BAJAK
Nekazar., abeltz. eta basog.	%0,2	%0,2	%0,3	%2,0	%0,4	%0,1
Energia eta ura	%0,2	%0,1	%0,2	%1,2	%0,2	%0,0
Eraikuntza	%10,5	%10,5	%9,6	%-9,9	%12,3	%17,3
Industria	%21,2	%22,0	%23,3	%52,8	%19,3	%11,8
Zerbitzuak	%67,9	%67,2	%66,7	%53,9	%67,7	%70,8
GUZTIRA	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0

Emaitzak azpisektoreka begiratzuz gero era askotakoak dira, nahiz eta pisu erlatiboen aldakuntzak adierazgarriak ez izan, salbu ondoren datozen azpisektoreetan:

- Industriaren sektorean industria siderometalurgikoa da –industria-establezimenduen kopururik handiena biltzen duen sektorea-hazkunderik handiena erakusten duena: 1999an %14,3a ordezkaterik 2001an %15,5a ordezkatera pasatuaz. Sektore horrek, beraz, aurreko biurtekoan agertu zen joerari jarraipena ematen dio. Gainontzeko industria-sektoreek ez dute gorabehera handirik erakusten.
- Zerbitzuen sektorean, merkataritzak –azpisektorerik garrantzitsuena kantitateari dagokionez- gutxitu egiten du bere garrantzi erlatiboa: 1999an %25,9 zena 2001ean %24,3ra iritsi da, hau da, 1999. urtearen eta 2001. urtearen bitartean gertatu den bezala. Hala ere, sektore honetan bada alderdi positiborik ere: administrazio-zerbitzuetan –1999an %9,9 eta 2001ean %10,5- eta, neurri apalagoan bada ere, zerbitzu pertsonaletan eta osasun zerbitzuetan: %6,5 eta %3,5 1999an eta %6,6 eta %3,7 2001ean, hurrenez hurren bi urteetan.

1.15. taula ESTABLEZIMENDUEN EGITURA SEKTOREKA 1997AN, 1999AN ETA 2001EAN. 1999 2001 ALDIKO ALTA ETA BAJEN PORTZENTAJEA.

Sektorea	ESTABLEZIMENDUAK			99-01 ALDIKO GORABEHERA		
	1997	1999	2001	EMAITZA	ALTAK	BAJAK
Nekazar., abeltz. eta basog.	%0,2	%0,2	%0,3	%2,0	%0,4	%0,1
Energia eta ura	%0,2	%0,1	%0,2	%1,2	%0,2	%0,0
Eraikuntza eta eraik. materialak	%10,5	%10,4	%9,6	%-9,9	%12,3	%17,3
Industria kimikoa	1,8	%1,6	%1,5	%-1,0	%0,9	%1,3
Ind. sideromet eta eraldatzailea	%13,3	%14,3	%15,5	%45,0	%13,4	%6,4
Elikadura industria	%1,7	%1,7	%1,8	%5,3	%1,5	%0,6
Ehungin., oinet. eta arropag.	%0,6	%0,6	%0,6	%0,8	%0,6	%0,5
Papergintza eta arte grafikoak	%1,4	%1,4	%1,4	%0,8	%1,0	%1,1
Zur, kortxo eta altzairen ind.	%2,3	%2,4	%2,4	%1,9	%1,9	%2,0
Merkataritza	%26,8	%25,9	%24,3	%-12,9	%23,4	%31,5
Ostalaritza	%10,0	%9,4	%9,5	%13,1	%11,6	%11,3
Garraioak	%4,8	%5,1	%5,3	%11,4	%6,4	%5,3
Komunikabideak	%0,1	%0,1	%0,1	%1,0	%0,2	%0,1
Banka eta aseguruak	%1,6	%1,6	%1,6	%1,4	%1,3	%1,2
Aholk. eta admin.-zerbitzuak	%9,3	%9,9	%10,5	%26,5	%11,6	%8,2
Saneamendua eta garbikuntza	%1,5	%1,2	%1,2	%2,0	%1,8	%1,7
Hezkuntza	%2,4	%2,4	%2,4	%2,0	%1,9	%1,9
Osasuna eta gizarte-laguntza	%3,4	%3,5	%3,7	%9,0	%2,7	%1,3
Kultura, kirol eta...	%2,0	%1,7	%1,3	%-7,3	%1,5	%3,4
Zerbitzu pertsonalak	%6,0	%6,5	%6,6	%7,7	%5,4	%4,9
GUZTIRA	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0

Azpisektore bakoitzak izan duen bilakaeraren jatorria aztertzen badugu, hirugarren sektorea ikusiko dugu jokabide dinamikorik handiena erakusten, gainontzeko sektoreek erakusten dutena baino handiagoa, alegia, aldi horretan ireki eta itxitako establezimendukopuruari dagokionez.

Bestalde, esanguratsua gertatzen da industria-sektoreko jarduera adar esberdinak EAEko egituraren barruan duen pisu espezifikoki dagokionez, erakutsi duen jokabide egonkorra, nahiz eta orokorrean industria sektoreak establezimendu kopuruaren hazkunde handia ezagutu. Hazkunde hau ia eskusiboki, siderometalurgia industriak jasotako gorakadaren bitartez azaltzen da. Horrela, bada, industriaren alorrean establezimendu berri bat sortzeko batez beste behar diren alten kopurua bikoitza baino ez denean, zerbitzuen alorrean establezimendu berri bat sortu dela kontuan izateko behar den ratio hori 7ra arte igo da.

1.16. taula 1999 2001EKO ALTA ETA BAJEN INDIZEA 1999KO ESTABLEZIMENDU KOPURUAREN GUZTIZKOAREKIKO.

99-01 ALDIKO GORABEHERA				
Sektorea	1999	EMAITZA	ALTAK	BAJAK
Nekaz., abeltzain. eta basogin.	149	%33,6	%38,9	%5,4
Energia eta ura	82	%37,8	%39,0	%1,2
Eraikuntza	6.224	%-4,0	%27,6	%31,6
Industria	13.143	%10,2	%20,4	%10,2
Zerbitzuak	40.143	%3,4	%23,5	%20,1
GUZTIRA	59.741	%4,2	%23,3	%19,0


Aurreko aldiaren alderatuz gero, bai industria bai eraikuntzaren jokaera askoz ere egonkorragoa ikusiko dugu 1997. urtearen eta 1999. urtearen bitarteko aldiaren erakusten zutena baino. Hala, eraikuntza sektorerik dinamikoena bazen ere –1999ko establezimendu-kopuruarekiko alta eta baje portzentaje erlatiborik handienekoa-, gauden biurtekoan askoz ere apalagoa izatera iritsi da; industrian, ordea, alta eta baje pisu erlatiboa oso maila apalagoa jaitsi da: alta eta baje portzentaje 15 puntu inguru.

1.3.2. Soldatuko enpleguaren bilakaeraren dinamika jarduera sektoreka.

Enpleguaren hazkunde orokorra aurreko biurtekoarekin alderatuz txikiagoa izatea, EAEko ekonomiaren sektore handienetan islatzen da. Hala, industriak zein zerbitzuek aurreko biurtekoan baino askoz ere hazkunde-tasa murriztagoak erakusten dituzten.

Bestalde, eraikuntza-sektoreko enpleguak behera egin du bitarteko honetan, apalki bada ere. Joera horrek, beraz, aldaketa bat erakusten du 1999. urtera arte ikusten zen hazkunderako joeran.

1.14. grafikoa BILAKAERA SOLDATAKO ENPLEGUAREN 1995 2001 BITARTEKOAN JARDUERA SEKTOREEN ARABERA (ERAIKUNTZA, INDUSTRIA, ZERBITZUAK) (HAZKUNDE TASAK BIURTEKOETAN)



Aurreko atal batean azpimarratu dugunez, biurtekoa bereizi duen ezaugarririk funtsezkoena zera izan da: 1999. urtera arte ikusi dugun prozesua, hots, enpresa-bilbea hirugarren sektoreko bihurtzearena, eten egin dela. Hala, industriak eta zerbitzuek erakusten duten hazkunde-tasak, hurrenez hurren, %7,8 eta %7,3 dira; aurreko aldiak ikusitakoak, ordea, %9,6 eta %18,4, hurrenez hurren horiek ere.

Sektore bakoitzeko enpleguaren pisu erlatiboaren bilakaera aztertzerakoan, industriak hazkunde handiagoa erakusten du, nahiz eta zerbitzuek ere enpleguaren multzo osoan pisu erlatiboa areagotu; eta hori guztia hala gertatzen da, eraikuntzaren kalterako, azken sektore horrek atzerakada handia erakusten duelako.

Industriak 1999-2001 biurtekoan sortutako enplegu orokorraren %44,3 sortzen du, bere pisu erlatiboa guztiarekiko %39,2koa bada ere; zerbitzuek ordea %54,3 sortu dute. Eraikuntza murriztu egin du biurteko honetan bere pisu erlatiboa: 1999an %9,6 eta 2001ean %8,9.

1.17. taula SOLDATAKO ENPLEGUAREN EGITURA SEKTOREKA 1997AN, 1999AN ETA 2001EAN. 1999 2001 ALDIKO ALTAK ETA BAJAK.

	ENPLEGUAK			99-01 ALDIKO GORABEHERA ¹⁴			
	1997	1999	2001	EMAITZA (a-b+c)	ALTAK (a)	BAJAK (b)	ERREP. (c)
Nekaz., abeltz. eta basogin.	616	724	1.283	559	221	119	457
Energia eta ura	4.639	4.258	4.257	-1	1.572	213	-1.360
Eraikuntza	40.092	48.257	48.196	-61	6.884	4.885	-2.060
Industria	178.807	195.892	211.150	15.258	15.649	13.725	13.334
Zerbitzuak	215.720	255.479	274.163	18.684	33.099	26.923	12.508
EAE	439.874	504.610	539.049	34.439	57.425	45.865	22.879


14 2001eko alden, bajea eta emaitzen zifra absolutuak zati 1999an zabalik zeuden enpresak guztira bider 100.

(c) 1999-2001 bitartekoan sorturiko establezimendu berriek sortutako enplegua.

(d) 1999an irekita zeuden eta 1999-2001 bitartekoan zehar desagertutako establezimenduetako enplegua.

(e) 1999an eta 2001ean zeuden plantilen arteko diferentzia (positiboa edo negatiboa), bitarte horretan zehar irekita mantendu diren establezimendutan: 2001eko establezimenduetako enplegua ken 1999ko establezimenduetako enplegua.

1.15. grafikoa SOLDATAKO ENPLEGUAREN ALTAK ETA BAJAK INDUSTRIAN ETA HIRUGARREN SEKTOREAN 1999 2001 ALDIAN. EAE¹⁵



1999-2001 bitarteko enpleguaren profila bestelakoa da sektore bakoitzean. Industrian hazkundera hein handi batean -87% 1999an irekita zeuden establezimenduetako plantilaren gehikuntzaz etorria.

Zerbitzuen sektorean, ostera, enplegua sortzeko bide hori sektorean sortutako enplegu netoaren 67% iristen zen. Datu horrek badu zerikusi, neurri handi batean behintzat, hirugarren sektoreko establezimenduen tamaina, batez beste, txikiagoa izatearekin, hala nola tamaina horretako establezimenduetan enpleguaren finkotasuna txikiagoa izatearekin.


¹⁵ Altak: 1999-2001 aldian sortutako establezimendu berrietan sortutako enplegua.

Bajak: 1999an irekita egon eta 1999-2001 aldian zehar itxi ziren establezimenduetako enplegua.

Errepikatuak: 1999an eta 2001ean zeuden plantilen arteko diferentzia (positiboa edo negatiboa), aldi horretan zehar irekita egon diren establezimenduetan: 2001ean establezimenduetako enplegua ken 1999an establezimenduetako enplegua.

Eaitza: Altak ken bajak gehi errepikatuak.

1.16. grafikoa INDUSTRIA ETA HIRUGARREN SEKTOREKO SOLDATAKO ENPLEGUAREN BILAKAERA EAE N 1999 2001EKO ALDIAN



1.18. taula SOLDATAKO ENPLEGUAREN EGITURA SEKTOREKA 1997AN, 1999AN ETA 2001EAN. 1999 2001 ALDIKO ALTA ETA BAJEN PORTZENTAJEAK.

	ENPLEGUAK			99-01 ALDIKO GORABEHERA			
	1997	1999	2001	EMAITZA	ALTAK	BAJAK	ERREP.
Nekaz., abeltz. eta basogin	%0,1	%0,1	%0,2	%1,6	%0,4	%0,3	%2,0
Energia eta ura	%1,1	%0,8	%0,8	%0,0	%2,7	%0,5	%-5,9
Eraikuntza	%9,1	%9,6	%8,9	%-0,2	%12,0	%10,7	%-9,0
Industria	%40,6	%38,8	%39,2	%44,3	%27,3	%29,9	%58,3
Zerbitzua	%49,0	%50,6	%50,9	%54,3	%57,6	%58,7	%54,7
EAE	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0

Azpi-sektoreen arabera enpleguaren egiturak 1999ko egituraren antzeko banaketa erakusten du. Honakoak dira aldi honetako ezaugarriak garrantzitsuenak:

- Industria siderometalurgikoaren pisu erlatiboaren hazkundera %27,7koa zen 1999an eta %28,3koa 2001ean. Industriaren gainontzeko adarren pisu erlatiboek ia inolako aldaketarik gabe jarraitzen dute 1999. urteaz geroztik.
- Zerbitzuetan, merkataritzaren pisu erlatiboaren galera da gertakizunik nabarmena: 1999an %14,3 eta 2001ean %13,3. Saneamendu eta garbikuntzarena eta osasunarena ere aipagarriak dira: 1999an, %3,7 eta %2,9, eta 2001ean, %4,2 eta %3,3, hurrenez hurren bietan.

Aurreko biurtekoarekin alderatuz gero, bilakaera horrek, aldaketa bat adierazten du nolabait joeretan ordutik hona. Garai hartan merkataritzak 4 hamarrenetan areagotu zuen bere pisu erlatiboa, industria siderometalurgikoak, ordea, 1,1 puntu galdu zituen pisu erlatiboaren ehunekoan.

1.19. taula SOLDATAKO ENPLEGUAREN EGITURA SEKTOREKA 1997AN, 1999AN ETA 2001EAN. 1999-2001 ALDIKO ALTAK ETA BAJAK.

	ENPLEGUAK			99-01 ALDIKO GORABEHERA ¹⁶			
	1997	1999	2001	EMAITZA (a-b+c)	ALTAK (a)	BAJAK (b)	ERREP. (c)
Nekaz., abeltz. eta basog.	616	724	1.283	559	221	119	457
Energia eta ura	4.639	4.258	4.257	-1	1.572	213	-1.360
Eraikuntza eta eraik. material.	40.092	48.257	48.196	-61	6.884	4.885	-2.060
Industria kimikoa	20.536	21.879	22.685	806	1.235	1.249	820
Ind. siderometalurgikoa	126.587	139.965	152.411	12.446	11.739	9.693	10.400
Elikadura	11.087	11.469	12.212	743	1.147	1.397	993
Ehungintza, larrugintza, ...	2.926	3.041	3.042	1	203	268	66
Paperaren ind. eta arte grafik	10.032	10.551	10.796	245	557	455	143
Zuraren, kortxoaren,... industria	7.639	8.987	10.004	1.017	768	663	912
Merkataritza	61.092	71.967	71.835	-132	9.333	8.683	-782
Ostalaritza	20.300	25.823	27.500	1.677	4.125	2.852	404
Garraioak	18.864	20.380	23.109	2.729	2.806	2.169	2.092
Komunikabideak	3.920	4.235	4.540	305	227	103	181
Banka eta aseguruak	17.844	17.795	17.890	95	422	1.911	1.584
Aholku. eta admin. zerbitzuak	38.018	47.199	51.394	4.195	7.629	6.539	3.105
Saneamendua eta garbikuntza	16.065	18.607	22.627	4.020	3.936	1.467	1.551
Hezkuntza	15.982	21.946	23.306	1.360	1.659	1.325	1.026
Osasuna eta gizarte-laguntza	12.855	14.688	17.401	2.713	1.071	626	2.268
Kultur zerb., kirol zerb. eta abar	4.884	5.917	6.926	1.009	726	365	648
Zerbitzu pertsonalak	5.896	6.922	7.635	713	1.165	883	431
EAE	439.874	504.610	539.049	34.439	57.425	45.865	22.879

16 2001eko alden, baje eta emaitzen zifra absolutuak zati 1999an zabalik zeuden enpresak guztira bider 100.

(a) 1999-2001 bitartekoan sorturiko establezimendu berriek sortutako enplegua.

(b) 1999an irekita zeuden eta 1999-2001 bitartekoan zehar desageritutako establezimenduetako enplegua.

(c) 1999an eta 2001ean zeuden plantilen arteko diferentzia (positiboa edo negatiboa), bitarte horretan zehar irekita mantendu diren establezimendutan: 2001eko establezimenduetako enplegua ken 1999ko establezimenduetako enplegua.

1.20. taula SOLDATAKO ENPLEGUAREN EGITURA 1997AN, 1999AN ETA 2001EAN. 1999 2001 ALDIKO ALTA ETA BAJEN PORTZENTAJEA.

	ENPLEGUAK			99-01 ALDIKO GORABEHERA			
	1997	1999	2001	EMAITZA	ALTAK	BAJAK	ERREP.
Nekaz., abeltz. eta basogin.	%0,1	%0,1	%0,2	%1,6	%0,4	%0,3	%2,0
Energia eta ura	%1,1	%0,8	%0,8	%0,0	%2,7	%0,5	%-5,9
Eraikuntza eta eraik. mat.	%9,1	%9,6	%8,9	%-0,2	%12,0	%10,7	%-9,0
Industria kimikoa	%4,7	%4,3	%4,2	%2,3	%2,2	%2,7	%3,6
Ind. siderometalurg.	%28,8	%27,7	%28,3	%36,1	%20,4	%21,1	%45,5
Elikadura	%2,5	%2,3	%2,3	%2,2	%2,0	%3,0	%4,3
Ehungintza, larrugintza,...	%0,7	%0,6	%0,6	%0,0	%0,4	%0,6	%0,3
Papera eta arte grafikoak	%2,3	%2,1	%2,0	%0,7	%1,0	%1,0	%0,6
Zur, kortxoak,... industriak	%1,7	%1,8	%1,9	%3,0	%1,3	%1,4	%4,0
Merkataritza	%13,9	%14,3	%13,3	%-0,4	%16,3	%18,9	%-3,4
Ostalaritza	%4,6	%5,1	%5,1	%4,9	%7,2	%6,2	%1,8
Garraioak	%4,3	%4,0	%4,3	%7,9	%4,9	%4,7	%9,1
Komunikabideak	%0,9	%0,8	%0,8	%0,9	%0,4	%0,2	%0,8
Banka eta aseguruak	%4,1	%3,5	%3,3	%0,3	%0,7	%4,2	%6,9
Aholkul. eta admin. zerbitzuak	%8,6	%9,4	%9,5	%12,2	%13,3	%14,3	%13,6
Saneamendua eta garbikuntza	%3,7	%3,7	%4,2	%11,7	%6,9	%3,2	%6,8
Hezkuntza	%3,6	%4,3	%4,3	%3,9	%2,9	%2,9	%4,5
Osasuna eta gizarte-laguntza	%2,9	%2,9	%3,3	%7,9	%1,9	%1,4	%9,9
Kultura, kirol,... zerbitzuak	%1,1	%1,2	%1,3	%2,9	%1,3	%0,8	%2,8
Zerbitzu pertsonalak	%1,3	%1,4	%1,4	%2,1	%2,0	%1,9	%1,9
EAE	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0

2. kapituluia
Emaizen laburpena

2001. urtean zehaztu den negoziazio-eremuak guztira 649.091 enplegu kolektiboa barnebiltzen du, hau da, soldatako populazioaren multzo osoaren %99,3, edo zenbaki absolutuetan, 635.955 enplegu¹⁷.

Negoziazio-eremu horrek erakusten duen sailkapen maila aurreko biurtekoan atera zena baino ehuneko bi hamarren handiagoa da: 1999koan %99,1 eta %99,3 2001eko honetan. Gainontzeko %0,7ari -4.864 enplegu- ez zaio negoziazio-eremu bakar bat egotzi, horiek bi edo hiru hitzarmenetakoak izan daitezkeelako.


Negoziazio-eremua identifikatuta duten enplegu kolektibo osotik -649.091- %79,8 sektore pribatuko soldatapekoak dira -ehuneko hiru hamarren gehiago 1999an baino-, gainontzeko enplegua honako eremuetan¹⁸ banatzen da:

- Sektore publikoa: honetan biltzen da identifikatutako eremua duten enpleguen %17a, hau da, 110.130 soldatapeko -ehuneko bi hamarren gutxiago 1999an baino.
- Negoziazio kolektiboaz arautu gabeko jarduerak: guztiaren %2,2 edo 14.567 enplegu.
- Sektore pribatuko soldatapekoak, sektoreko hitzarmena eguneratu gabe dutenak: guztiaren %1,0 edo 6.540 enplegu.

17 Barneraturiko soldatapeko biztanleria guztia, Lan Harremanen Kontseiluaren enpresa direktorian azaltzen den informazioari buruzkoa da, segurantzaren sozialeko kotizazioaren erregimena orokorrean alta emanak dauden sektore pribatuko normal soldatakoegi dagokiena eta era berean ere, informazio iturri ofizial desberdien bitartez lortutako soldatapeko enplegua, etxeko zerbitzua izan ezik, sektore publikoa, arrantza sektorea eta merkataritzako nabigazioa.

18 Zenbati argibide azaldu behar dira, kapitulu hau ulergarria izan dadin. Honela, eremu funtzionalaren barru bi azpialde sailkatzen dira; alde batetik, hitzarmen eguneratua dutena eta bestetik, eguneratu gabeko hitzarmena dutenak -azken horiek 1994. urteaz geroztik eroldatu ez diren hitzarmenak osatzen dute-. Hitzarmenaren lurralde eremuari dagokionean, hori Estatukoak izan daiteke: Estatu-eremua duen hitzarmena. Lurraldeartekoa/EAE: lurralde historiko batez haraindi luzatzen den hitzarmena. Lurraldekoa: lurralde-eremuko hitzarmena eta Tokikoa: lurralde-eremu osora iristen ez den hitzarmena. Bukatzeko eta enpresa mailako hitzarmenei dagokionean, Estatukoak, Estatu mailan eroldaturik dauden hitzarmenei dagozkie, hain zuzen ere, lan ministerioan eroldaturik daudenak. EAEko hitzarmenak berriz, EAEko langintzaritzaren bulego desberdinetan eroldaturik daudenak dira.


Ondoko eskeman ikus daiteke EAEko negoziazio kolektiboaren egitura erakusten duen mapa eta hori osatzen duten negoziazio-eremu desberdinak aztertzeko marko orokorra.



(1) Estatuko eremuko enpresa-hitzarmena dutelarik, euskal erkidegoan dauden enpresak bi kategoriatan banatu dira: batan, beren langile gehienak EAE n dituztenak sartu dira, eta bestean beren langile gehienak EAEtik kanpo dituztenak. Hala, eta adibide gisa bakar batzuk ematearren, lehen kategorian sailkatu dira: "Bellota herramientas, S.A.", "Zardoya otis", "Roberto zubiri", eta abar; bigarrenean ordea: "Astilleros españoles, S.A.", "Seat, S.A.", "Tabacalera, S.A.", eta abar.

1999ko datuekin alderatzen badugu, soldatako populazio osoaren (sektore pribatua eta publikoa) hazkundera 39.602 soldatako enplegukoa da, hau da, %6,4ko hazkundera. Zenbaki horiek, halaber, hazkunderaren moteltzea adierazten dute 1997-1999ko biurtekoarekin alderatuz, horretan hazkundera %12,7koa izan baitzen.

2.1. grafikoa SEKTORE PUBLIKO ETA SEKTORE PRIBATUKO SOLDATAKO POPULAZIO OROKORRAREN BILAKAERA. 1997 2001 (HAZKUNDE TASAK BIURTEKOAK)



Bilakaera horren analisiak erakusten duenez, eremu bakoitzaren jokabidea sektorearen arabera (publikoa edo pribatua) aldatzen da:

- Eremu pribatuko soldatapeko populazioak gora egin du -%6,9- 1999ko populazioarekiko; hazkundera-tasa beraz aldi horretako soldatapeko populazio-multzoaren gaitetik dago. Hazteko erritmo horrek, hala ere, moteltzea adierazten du sektore pribatuak 1997-1999 biurtekoan izan zuen erritmoarekiko, hori %14,8koa¹⁹ izan baitzen.
- Eremu publikoko soldatako populazioak gora egin du -%5,1 1999an, hau da, eremu pribatuak erakutsi duen tasaren azpitik. Alabaina, aurreko biurtekoan izan zuen bilakaerarekin alderatuz, eremu publikoaren hazkundera honek aldi hartan ikusitako joeraren -%2ko gutxitze-tasa izan zuen- aldaketa adierazten du.

2.1. ESTATUKO ETA EAE-KO LURRALDE-EREMUA


Sektore pribatu eta publikoko soldatako kolektiboa elkaturik aztertzen baditugu sektore bakoitzari dagokion negoziazio-eremuarekiko –EAE (hitzarmena EAEn erregistratu dena) edo Estatua-, soldatako 627.984 langilek hitzarmena edo akordio arautzailea identifikatuta dutela ikusiko dugu eta horietatik %82,0k EAE dutela beren negoziazio-eremua, hau da, ehuneko lau hamarren gehiago 1999an baino, eta negoziazio-eremua Estatua²⁰ dutenak ordea %18 baino ez direla.

19 Nolanahi ere, aipatu behar da 1997-1999ko aldiaren sektoreko hainbat hitzarmen berri sortu zirela eta horiekin batera, beste hainbat akordio, laudo, eta abar. Horiek dira, hain zuzen 1997-1999 biurteko horretan ikusi ahal izan zen hazkundera handiagoaren arrazoia hein batean.

20 Kontuan izan behar da Estatuko lurralde-eremuan sartzen direla aldi baterako lan-enpresen hitzarmenak eta horietako langileak, indarrean dagoen araudiaren ondorioz, Estatuko lurralde-eremuaz bestelako lurralde-eremuako hitzarmenez araututako establezimenduetan ari daitezkeela lanean. Hala, EAEn dauden aldi baterako lan-enpresek guztira 8.402 enplegu dituzte, baina horiek Estatuko lurralde-eremuan sartu dira, nahiz eta ezarpen-eremua -jardueraren jiteagatik-zehaztu gabea izan.


Beraz, soldatako populazio-multzoari dagokionez, 1999-2001 bitartekoan EAEko eremuak gehikuntza txiki bat izan du Estatuko eremuaren kalterako. Datu hori 1997-1999 biurtekoan ikusitako bilakaera aldatzera dator, orduan Estatuko eremua zelako garrantzi erlatiboa areagotzen ari zena: ehunekoan 8 hamarren.

2.2. grafikoa SOLDATAKO POPULAZIOAREN PISU ERLATIBOA EAE KO EREMUAREN ETA ESTATUKO EREMUAREN ARABERA. 1997-2001



Sektore publiko eta pribatuaren analisi espezifikoak, alde batetik, sektore publikoari dagokionez EAEko eremuak duen garrantzi erlatiboa nolakoa den erakusten du: %89,8, alegia, eta bestetik, sektore pribatuari dagokionez, eremu horren berorren garrantzia: enpleguaren %80,3.

2.3. grafikoa SEKTORE PRIVATU ETA PUBLIKOKO SOLDATAKO POPULAZIO OROKORRAREN PISU ERLATIBOA, EAE KO NEGOZIAZIO EREMUAREN ETA ESTATUKO NEGOZIAZIO EREMUAREN ARABERA. 2001. URTEA.



Aurreko edizioarekin alderatuz, sektore pribatuari dagokionez EAEko eremuak pisu erlatibo pixka bat irabazi du: 1999an %80 eta 2001ean %80,3. Eta hori guztia eremu honek 1997-1999 biurtekoan bere pisu espezifikoan 1,3 puntu galdu ondoren. Era berean, sektore publikoaren barruan ere aldaketa nabarmena eman da EAEko eremuari dagokionez: 1999an %89,1 eta %89,8 2001ean.

Lurralde historiko bakoitzean sektore pribatuko soldatako populazioaren banaketa modu berezian eta sektore horietako bakoitzari dagokion negoziazio-eremuaren arabera aztertuz, lurralde bakoitzean egitura guztiz desberdina ikusiko dugu sektore bakoitzean.

2.1. taula ESTATUKO EDO ERKIDEGOKO NEGOZIAZIO EREMUETARA LOTUTA DAGOEN SEKTORE PRIBATUKO SOLDATAKO POPULAZIOAREN BANAKETA.

	k.a.	2001 % b.	1999 % b.	1997 % b.
Estatukoa	20.732	24,8	24,3	24,2
Erkidegokoa	62.895	75,2	75,7	75,8
ARABA	83.627	100,0	100,0	100,0
Estatukoa	54.852	20,6	21,6	20,1
Erkidegokoa	211.502	79,4	78,4	79,9
BIZKAIA	266.354	100,0	100,0	100,0
Estatukoa	26.366	15,7	15,5	14,9
Erkidegokoa	141.507	84,3	84,5	85,1
GIPUZKOA	167.873	100,0	100,0	100,0
Estatukoa	101.950	19,7	20,0	19,1
Erkidegokoa	415.904	80,3	80,0	80,9
EAE	517.854	100,0	100,0	100,0

Oro har, hiru lurraldeetan EAEko lurralde-eremuak jarraitzen du nagusi: izaten: erkidegoan erregistraturiko hitzarmenetara lotuta dauden langileen hiru lauren, hala ere badira desberdintasunak beren artean.

Hala, aurreko taulan xehetasun gehiagoz ikus daitekeenez, Araban Estatuko eremuaren pisu erlatiboa EAEn eremu horrek batez beste duen pisu erlatiboa baino handiagoa da argi eta garbi; Gipuzkoan ordea Estatuko eremuaren pisu erlatiboa txikiagoa da ezbairik gabe. Bizkaiari dagokionez, bestalde, EAE osoak erakusten duen antzeko profila duela esan behar.

1999. urteko datuak alderatzera jotzen badugu, Gipuzkoak ia-ia 1999an erakusten zuen egituraren banaketa bera erakusten du; Arabak, ordea, Estatuko eremua duten hitzarmenen pisu erlatiboa ehuneko 5 hamarretan gehitzen du: 1999an %24,3 eta 2001ean %24,8. Bizkaian, ordea, ehunekoaren puntu bat gehitzen da erkidegoaren eremua duten hitzarmenen pisu erlatiboa: 1999an %78,4 eta 2001ean %79,4.


2.2. SEKTOREKO NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN PANORAMA

Lurraldeko analisisiaz bestelakoa da negoziazio kolektiboak sektoreka edo enpresaz enpresa hartuz egiten dena.

2001. urtean, sektore pribatuaren barruan 427.438 enplegu –sektore pribatuko soldatapeko enplegu guztien %82,5- sektore mailako negoziazioetan sartzen ziren; 90.415 enplegu –gainontzeko %17,5- ordea enpresa barruko hitzarmenetan.

Egoera horrek adierazten duenez modu esanguratsuan hazi dira sektoreko hitzarmenak, hots, ia puntu bat ehunekotan: 1999an %81,6 izatetik %82,5 izatera 2001ean; eta hori guztia enpresetako hitzarmenen kalterako, horiek 1999an %18,4 izatetik %17,5 izatera aldatu baitira 2001ean.

2.4. grafikoa SEKTORE PRIBATUKO SOLDATAKO POPULAZIOAREN BANAKETA, NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA SEKTOREKA EDO ENPRESAKA IZAN. 1999 2001 EAE.



Sektoreka egindako analisi xehatuak erakusten duenez, sektoreko eremura lotuta dagoen enpleguaren pisu erlatiboa askoz ere handiagoa enpresako eremura lotuta dagoenarena baino. Bi sektore dira bakarrik –Energia eta ura eta komunikazioak– enpresako hitzarmena nagusi diren sektoreak. Ondoren datorren taulan ikus daiteke aurrean adierazitakoa.

Bi sektore horiek albo batera utziz, gainontzekoetan nabarmena da sektore mailako negoziazioa salbu industria kimikoaren sektorean eta osasuna eta gizarte-laguntzaren sektorean, horietan egitura bi negoziazio eremuetan banatzen baita, oreka handiz gainera.

2.2. taula SEKTORE PRIBATUKO SOLDATAKO POPULAZIOAREN BANAKETA
SEKTOREKA ETA NEGOZIAZIO EREMUAREN ARABERA (SEKTOREKA EDO
ENPRESAKA)


SEKTORE- EREMUA			ENPRESA EREMUA	
Enpleguak	%		Enpleguak	%
819	74,9	Nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza	275	25,1
2.523	100,0	Arrantza	0	0,0
311	7,7	Energia eta ura	3.722	92,3
44.361	93,2	Eraikuntza eta eraikuntzako materialak	3.241	6,8
11.465	50,5	Industria kimikoa	11.220	49,5
119.714	78,6	Industria siderometalurgikoa eta eraldatzailea	32.621	21,4
8.869	74,0	Elikadura industria	3.111	26,0
2.785	92,9	Ehungintza, larrugintza, oinetakoak eta arropagintza	213	7,1
8.504	79,2	Paperaren industria eta arte grafikoak	2.229	20,8
9.693	96,9	Zur, kortxo eta zurezko altzarien industria	311	3,1
64.439	94,5	Merkataritza	3.748	5,5
27.041	98,5	Ostalaritza	404	1,5
16.628	77,8	Garraioak	4.755	22,2
0	0,0	Komunikabideak	3.209	100,0
11.907	68,7	Banka eta aseguruak	5.437	31,3
43.201	92,5	Aholkularitza eta administrazio zerbitzuak	3.512	7,5
18.016	79,6	Saneamendua eta garbikuntza	4.611	20,4
22.449	97,1	Hezkuntza	659	2,9
6.927	56,7	Osasuna eta gizarte-laguntza	5.281	43,3
3.137	65,1	Kultura, kirol, eta bestelako zerbitzuak	1.681	34,9
4.650	96,4	Zerbitzu pertsonalak	175	3,6
427.439	82,5	GUZTIRA	90.415	17,5

Aldagarritasunari begiraturik, sektorekako egitura orokorra 1999koaren antzekoa da, ez baita aldaketa handirik ikusten bi aldietako edizioen artean. Azpisektore gehienetan gora egin du sektoreko eremuaren pisu erlatiboak, behera egin duten honako lau kasuetan izan ezik:

- Industria siderometalurgikoa eta eraldatzailea.
- Merkatariak.
- Saneamendu eta garbikuntza
- Kultur zerbitzuak, kirol zerbitzuak eta bestelakoak.

Negoiazio lurren eremuaren arabera sektoreko hitzarmenetara lotuta dauden soldatapekoen kolektiboa bereiziki aztertuz, EAEko egitura orokorrean 1999ko antzeko mailatan mantentzen da; hortaz, soldatukoak lautik hiru baino zertxobait gehixeago -%77,0- negoiazio lurren eremura lotuta dago.

2.5. grafikoa SEKTOREKO NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAZ ARAUTUTAKO SOLDATAPEKOEN BANAKETA, HITZARMENEN LURRALDE EREMUAREN ARABERA.



Lurralde arteko eremua duten hitzarmenen aurrerakuntza gertatzen da bakar-bakarrik aipagarri: 1999an %4,6tik %5,1era 2001ean. Era berean, eremua lurraldetzat dutenen pisu erlatiboak behera egiten du: 1999an %77,0 eta %70,0 2001ean.

Hala ere, analisi berak lurralde historiko bakoitzean aldaketa adierazgarriak erakusten ditu 1999ko azterketan ikusitako egiturari dagokionez.

Hala, adibidez, Arabako lurraldean Estatuko lurraldearen pisu erlatiboak gora egiten du 2,3 puntu ehunekotan; hori da pisu hori handiago erakusten duena; Bizkaian, ordea, hiru hamarren jaitsi da lurralde arteko eremuaren alde.

Gipuzkoan, bestalde, Estatuaren eremuaren pisu erlatiboak bere hartan jarraitzen du –lurralde honetan Estatu mailako negoziazioak hiru lurraldetan txikienak dira- lurralde arteko eremuak hazkunde handia erakusten du –bost hamarren ehunekotan-, lurraldekoak behera egiten duen bitartean.

2.3. taula SEKTOREKO HITZARMEN EGUNERATUETARA LOTUTAKO
SOLDATAKO POPULAZIOAREN BANAKETA LURRALDE EREMUAREN ARABERA.

	k.a.	2001 % b.	1999 % b.	1997 % b.
Estatukoa	15.169	26,8	24,5	24,3
Lurralde artekoa	2.767	4,9	4,4	3,5
Lurraldekoa	38.598	68,3	71,1	72,1
Tokikoa	0	0,0	0,0	0,0
ARABA	56.534	100,0	100,0	100,0
Estatukoa	39.014	17,7	18,0	16,5
Lurralde artekoa	11.481	5,2	4,8	4,1
Lurraldekoa	168.346	76,7	76,8	78,8
Tokikoa	964	0,4	0,5	0,7
BIZKAIA	219.805	100,0	100,0	100,0
Estatukoa	20.654	13,7	13,7	12,5
Lurralde artekoa	7.569	5,0	4,5	3,8
Lurraldekoa	122.195	80,9	81,3	83,0
Tokikoa	682	0,4	0,6	0,7
GIPUZKOA	151.100	100,0	100,0	100,0
Estatukoa	74.837	17,5	17,3	16,1
Lurralde artekoa	21.817	5,1	4,6	3,9
Lurraldekoa	329.139	77,0	77,6	79,4
Tokikoa	1.646	0,4	0,5	0,6
EAE	427.439	100,0	100,0	100,0

Jarduera-sektoreka negoziazio kolektiboaren eremu desberdinek duten garrantzi erlatibo-boa era askotakoa da; horrela, eraikuntzaren eta industriaren sektoreetan EAEko eremuak eta, batez ere lurraldekoak, pisu erlatibo handiagoa dute, hurrenez hurren, %97,3 eta %87,9. Bestalde, zerbitzuen sektorean ehuneko hori 20 puntu txikiagoa da: %65,0.

2.4. taula SEKTOREKO HITZARMEN EGUNERATUETARA LOTUTAKO
SOLDATAKO POPULAZIOAREN BANAKETA JARDUERA SEKTOREKA ETA
NEGOZIAZIO LURRALDEKA.

	LEHEN SEKTOREA		ENERGIA ETA URA		ERAIKUNTZA	
	Enpleguak	% b.	Enpleguak	% b.	Enpleguak	% b.
Estatukoa	819	24,5	311	100,0	1.207	2,7
Lurralde artekoa	0	0,0	0	0,0	0	0,0
Lurraldekoa	2.443	73,1	0	0,0	43.154	97,3
Tokikoa	80	2,4	0	0,0	0	0,0
GUZTIRA	3.342	100,0	311	100,0	44.361	100,0

	INDUSTRIA		ZERBITZUAK		GUZTIRA	
	Enpleguak	% b.	Enpleguak	% b.	Enpleguak	% b.
Estatukoa	19.136	11,9	53.364	24,4	74.837	17,5
Lurralde artekoa	0	0,0	21.817	10,0	21.817	5,1
Lurraldekoa	141.566	87,9	141.976	65,0	329.139	77,0
Tokikoa	328	0,2	1.238	0,6	1.646	0,4
GUZTIRA	161.030	100,0	218.395	100,0	427.439	100,0

1999. urtearekin alderatuz, ia-ia ez da aldakuntzarik ikusten jarduera-sektore handiei dagokienez behintzat. Lehen sektorearen barruan bakarrik ikus daiteke Estatuko eremua dutenen pisu erlatiboaren hazkundera –1999an %17,8 eta 2001ean %24,5- lurraldeetako eremuaren kalterako: 1999an %79,8 eta 2001ean %73,1.

2.5. taula SEKTOREKO NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAZ ARAUTUTAKO SOLDATAKO
ENPLEGUAREN BANAKETA SEKTOREKA ETA HITZARMENEN LURRALDE
EREMUKA. 1999 2001

	Lehen sektorea		Eraikuntza		Industria		Zerbitzuak	
	1999	2001	1999	2001	1999	2001	1999	2001
Estatukoa	17,8	24,5	2,4	2,7	11,8	11,9	24,5	24,4
Lurralde artekoa	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	9,2	10,0
Lurraldekoa	79,8	73,1	97,6	97,3	87,9	87,9	68,7	65,0
Tokikoa	2,4	2,4	0,0	0,0	0,3	0,2	0,7	0,6

Azpi-sektoreka xehetasun handiagoz egindako azterketak lurraldeko eremuaren nagusitasuna erakusten du –azpi-sektoreko enpleguaren %80tik gora-, salbu 5 azpi-sektoretan; horietan nabarmena da Estatuko eremuaren pisu erlatiboaren nagusitasuna:

- Nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza (%100),
- Energia eta ura (%100),
- Industria kimikoa (%100),
- Banka eta aseguruak (%100),
- Ehungintza, larrugintza, oinetakoak eta joskintza (%86,1),

2.6. taula SEKTOREKO HITZARMENETARA LOTUTAKO SOLDATAKO
POPULAZIOAREN BANAKETA JARDUERA SAILEN ETA NEGOZIAZIO EREMUEAN
ARABERA.

ESTATUKO LURRALDE EREMUA			EAE-KO LURRALDE EREMUA	
Enpleguak	%		Enpleguak	%
819	100,0	Nekazaritza, abeltzain. eta basog.	0	0,0
0	0,0	Arrantza	2.523	100,0
311	100,0	Energia eta ura	0	0,0
1.207	2,7	Eraikuntza eta eraikuntzako materialak	43.154	97,3
11.465	100,0	Industria kimikoa	0	0,0
682	0,6	Industria siderometalurgikoa eta eraldatzailea	119.032	99,4
2.765	31,2	Elikaduraren industria	6.104	68,8
2.398	86,1	Ehungintza, larrugintza, oinetakoak eta arropagintza	387	13,9
1.826	21,5	Paperaren industria eta arte grafikoak	6.678	78,5
0	0,0	Zur, kortxo eta zurezko altzarien industria	9.693	100,0
10.737	16,7	Merkataritza	53.702	83,3
212	0,8	Ostalaritza	26.829	99,2
2.882	17,3	Garraioak	13.746	82,7
0	0,0	Komunikabideak	0	0,0
11.907	100,0	Banka eta aseguruak	0	0,0
17.789	41,2	Aholkularitza eta administrazio zerbitzuak	25.412	58,8
1.044	5,8	Saneamendua eta garbikuntza	16.972	94,2
2.567	11,4	Hezkuntza	19.882	88,6
3.405	49,2	Osasuna eta gizarte-laguntza	3.522	50,8
893	28,5	Kultura, kirol eta bestelako zerbitzuak	2.244	71,5
1.928	41,5	Zerbitzu pertsonalak	2.722	58,5
74.837	17,5	GUZTIRA	352.602	82,5

1999. urtearekin alderatuz, azpisektore gehienetan ia-ia pisu erlatibo bera mantentzen dute Estatuko negozio-eremuak eta EAEkoak. Estatuko eremuaren pisu erlatiboa gehitzen duten azpisektoreak honakoak dira:

- Kultur zerbitzuak, kirol zerbitzuak eta bestelakoak: 1999an %24,7 eta 2001ean %28,5.
- Osasuna eta gizarte-laguntza: 1999an %43,3 eta 2001ean %49,2.
- Elikadura: 1999an %29,5 eta 2001ean %31,2.

Ondoko azpisektoreek, ordea, areagotu egin dute beren pisu erlatiboa EAEko eremuan 1999koarekin alderatuz:

- Paperaren industria eta arte grafikoak: 1999an %76,4 eta 2001ean %78,5.
- Merkataritza: 1999an %81,4 eta 2001ean %83,3.
- Saneamendua eta garbikuntza: 1999an %92,5 eta 2001ean %94,2.

2.2.1. Sektoreetako egituraren aniztasuna

2001. urtean EAEn dauden sektoreko hitzarmenen kopurua eguneratua guztira 205 da; ez dago aldaketarik, beraz, 1999. urteko kopuruari dagokionez. Hortaz, hitzarmenetara agregatutakoen batez besteko estalduraren ratioa 2001. urtean, aurreko aldikoa baino

handiagoa da, 1999tik 2001era sektoreko hitzarmenetara lotuta dauden enplegua hazi egin delako.

Zehaztuz, 2001. urtean, sektoreko hitzarmenek arautzen dituzten enpleguen batez bestekoa honakoa da: 2.085 enplegu, hau da, 1999k. urteari dagokion ratioa baino %8,1 gehiago.

Azpi-sektore bakoitzean ateratzen diren estaldura-ratioen analisi xehatuak garbi uzten du sektoreko hitzarmenen batez besteko estaldura hazi egin dela orokorrean. Hala, salbu hiru sektoretan, hazkundera gertatu da sektoreko hitzarmeneko batez besteko estalduran, eta hazkunde hori gainera adierazgarria da, ondoren datorren taula-laburpenean ikus daitekeenez.

2.7. taula SEKTOREKO ESTALDURA INDIZEA. 2001. URTEA

	HITZARMEN KOPURUA	BAT. BESTEKO ESTALDURA % ²²	ENPLEGU-KOP/ HITZARMENAK ²³
Nekazaritza, abeltzain. eta basog.	3	33,3	273,0
Arrantza	5	20,0	504,6
Energia eta ura	1	100,0	311,0
Eraikuntza eta eraikuntza-materialak	14	7,1	3.168,6
Industria kimikoa	2	50,0	5.732,5
Ind. siderometal. eta eraldatzailea	5	20,0	23.942,8
Elikadura industria	23	4,3	385,6
Ehung., larrug., oinetakoak eta arropag.	7	14,3	397,9
Paperaren industria eta arte grafikoak	7	14,3	1.214,9
Zuraren eta zurezko altzarien industria	4	25,0	2.423,3
Merkataritza	43	2,3	1.498,6
Ostalaritza	4	25,0	6.760,3
Garraioak	19	5,3	875,2
Komunikabideak	0	0,0	0,0
Banka eta aseguruak	6	16,7	1.984,5
Aholkularitza eta gizarte-zerbitzuak	14	7,1	3.085,8
Saneamendua eta garbikuntza	8	12,5	2.252,0
Hezkuntza	7	14,3	3.207,0
Osasuna eta gizarte-laguntza	9	11,1	769,7
Kultura, kirol eta bestelako zerbitzuak	18	5,6	174,3
Zerbitzu pertsonalak	6	16,7	775,0
GUZTIRA SEKTOREAK	205		2.085,1

Aurreko edizioetan ikusi izan dugunez, azpi-sektore bakoitzak erakusten duen sektoreko profilak guztiz desberdinak dira hitzarmenetako estaldura mailari dagokionez.

Horrela, badira azpi-sektore batzuk sektoreko hitzarmen-kopuru murrizta dutenak eta batez beste hitzarmenez estalitako enpleguen ratio altua dutenak; honakoak batez ere:

21 Arrantzaren sektorea, ehungintza, larrugintza, oinetakoak eta joskintzarena, hala nola, aholkularitza eta saneamendu eta garbikuntza.

22 100 zati hitzarmen-kopurua: hitzarmen bakoitzak hartzen duen sektoreko langileen batez besteko proportzioa.

23 Sektoreko hitzarmenek arautzen dituzten lanpostuak hartzen ditu kontuan.

- Industria siderometalurgikoa eta eraldatzailea (23.942 enplegu/hitzarmen) eta EAEn sektoreko hitzarmenera lotutako enpleguaren %28 hartzen duena.
- Neurri apalagoan bada ere, ostalaritza (6.760 enplegu/hitzarmen) eta industria kimi-koa (5.732 enplegu/hitzarmen).

Hala ere, badira beste aldean, sektore enpleguari dagokionez sektoreko hitzarmen-kopuru erlatibo handia dutenak. Horrenbestez, horiei dagokien estaldura-ratioa nabarmen txikiagoa da gainontzeko azpisektoreetan baino.

Azpisektoreen talde horietakoak dira honakoak: kultur zerbitzuak, kiroltakoak eta beste-lakoak (174 enplegu/hitzarmen), hala nola nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza (273,0 enplegu/hitzarmen).


2.3. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA ENPRESAN

Lehentxeago adierazienez, 1999-2001eko biurtekoan enpresako hitzarmenen garrantzi erlatiboa jaitsi eginda sektoreko eremuan egiten direnen kopuruari dagokionez. Hala, 1999. urtean enpresako hitzarmenen kopurua %18,4koa bazen, 2001ean sektore pribatuko hitzarmen horiek enpleguaren %17,5a estaltzen dute.

Bilakaera hori aurreko biurtekoan atzeman zen joera jarraitzera dator. Aldi hartan, enpresako hitzarmenetara lotutako enpleguaren garrantzi erlatiboa jaisten hasi zen, sektore pribatuko enplegu orokorrarekiko.


Alabaina, enpresako hitzarmenen kopuruaren bilakaerari berariaz dagokionez, zenbateko horrek hazkunde adierazgarria erakutsi zuen 1999. eta 2001. urteen bitartekoan: %6,6koa; hau da, EAEn 600 enpresako hitzarmen lortu ziren; 1999. urtean, ordea, 563 identifikatu ziren.

2.6. grafikoa 1997 2001 ALDIAN BEREN HITZARMENA DUTEN ENPRESEN KOPURUAREN BILAKAERA. EAE



Aurrerago adierazienez, aipatu hitzarmenen pisu erlatiboaren hazkuntza geldotu egin da sektoreko negoziazioak erakusten duen bilakaeraren joerarekin alderatuz gero.

2.7. grafikoa ENPRESAKO HITZARMENEZ ARAUTUTAKO SOLDATAKO ENPLEGUAREN BILAKAERA 1997 1999 ALDIAN. EAE




Horrela, enpresako hitzarmenera lotuta dauden enpleguen kopurua guztira 90.415ekoa bazen ere –hau da, 1999koa baino %1,7-, hazkunde-tasa hori txikiagoa da EAEko soldatako enplegu osoak erakusten duen tasa baino, baita sektoreko hitzarmenez estalitako enplegua baino ere.

Enpresako hitzarmenek lurralde bakoitzeko enplegu orokorraren gain duten eragina aztertzen badugu, era askotako emaitzak aurkituko ditugu lurralde horietako bakoitzean:

- Araban enpresako hitzarmenei atxikitako enpleguaren garrantzi erlatiboak gora egingen du zertxobait eta 27.093 enplegetara iristen da –2001ean sektore pribatuko enpleguaren %32,3 eta 1999an %31,7-; beraz lurralde honetan enpresako hitzarmenek pisu erlatibo handiagoa dute. Gauzak horrela, enpresako hitzarmenetara lotutako enpleguaren 1999tik 2001era arteko bilakaeratik funtsezko bi ondorio hauek ateratzen ditugu:

- Alde batetik, 1997-1999ko biurtekoan erregistratu zen joeran aldaketa bat eman da, hau da, enplegu horren pisu erlatiboa gutxitu egin zen sektore hitzarmenetara lotutako enpleguak erakusten duen hazkuntzarekin alderatuz.
- Bestetik, oro har EAEn eta gainontzeko lurraldeetan eman den jarreraren kontrako jokabidea ikusten da, horietan enpresako hitzarmenetara lotuta dagoen enpleguaren pisu erlatiboa gutxitzen ari delako.

2.8. grafikoa SOLDATAKO POPULAZIOAREN GARRANTZI ERLATIBOA LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA



- Bizkaia eta Gipuzkoan, ordea, enpresako hitzarmenei atxikitako enpleguaren pisu erlatiboak behera egin du. Izatez, 2001ean era horretako hitzarmenetara lotutako enpleguen kopuruak honakoak ziren hurrenez hurren: 46.549 eta 16.773, hau da, 1999ko datuekin alderatuz, ehuneko 1,4 eta 0,9 hamarreneko gutxitzea.

Azpisektore bakoitzeko enpresa-hitzarmenen azterketa xehatuak erakusten duenez, hitzarmen-mota horietara lotutako enpleguaren portzentaje handienak hartzen dituzten azpisektoreak –enpresako hitzarmenez araututako enplegu orokorraren gaineko termino erlatiboetan- industria siderometalurgikoa eta eraldatzailea -%36,1- eta industria kimikoa -%12,4- dira.

Bestalde, zerbitzuen sektorearen barruan banka eta aseguruak -%6,0- eta osasuna eta gizarte-laguntza -%5,8- eta saneamendu eta garbikuntza sektoreek enpresako hitzarmenera lotutako enpleguaren portzentaje handiena hartzen dute.

2.8. taula ENPRESAKO HITZARMENETARA LOTUTAKO SOLDATAKO POPULAZIOAREN BANAKETA JARDUERA EKONOMIKOKO ADARREN ARABERA.

	2001		1999	
	Enpleguak	%	Enpleguak	%
Nekazaritza, abeltzain. eta basog.	275	0,3	149	0,2
Arrantza	0	0,0	0	0,0
Energia eta ura	3.722	4,1	3.968	4,5
Eraikuntza eta eraikuntza-materialak	3.241	3,6	3.450	3,9
Industria kimikoa	11.220	12,4	11.066	12,4
Industria siderometal. eta eraldatzailea	32.621	36,1	30.244	34,0
Elikaduraren industria	3.111	3,4	3.061	3,4
Ehungintza, larrugintza, oinetakoak eta arropagintza	213	0,2	224	0,3
Paperaren industria eta arte grafikoak	2.229	2,5	2.129	2,4
Zur, kortxo eta zurezko altzarien industria	311	0,3	300	0,3
Merkataritza	3.748	4,1	2.934	3,3
Ostalaritza	404	0,4	466	0,5
Garraioak	4.755	5,3	4.376	4,9
Komunikabideak	3.209	3,5	3.532	4,0
Banka eta aseguruak	5.437	6,0	6.002	6,8
Aholkularitza eta administrazio zerbitzuak	3.512	3,9	5.913	6,7
Saneamendua eta garbikuntza	4.611	5,1	3.713	4,2
Hezkuntza	659	0,7	788	0,9
Osasuna eta gizarte-laguntza	5.281	5,8	5.171	5,8
Kultura, kirol eta bestelako zerbitzuak	1.681	1,9	1.263	1,4
Zerbitzu pertsonalak	175	0,2	158	0,2
GUZTIRA	90.415	100,0	88.907	100,0

1999. urtearekin alderatuz, enpresa hitzarmenen eremuan hirugarren sektoreko azpisektoreen garrantzi erlatiboaren hazkundera moteltzen ikusten da, hein handi batean industria siderometalurgikoa eta eraldatzailearen pisu espezifiko handituz doalako: 1999. urtean enpleguaren %34,0 eta 2001ean enpleguaren %36,1.

Horrela, bakar-bakarrik merkataritzak, saneamendu eta garbikuntzak eta kultur zerbitzuak eta, neurri apalagoan, garraioak erakusten dute nolabaiteko hazkundera bere pisu erlatiboan, 1999an enpresako hitzarmenetara lotutako enpleguaren kopuru osoarekiko.

Enpresako hitzarmenaren arabera negoziazio-lurraldearen banaketari dagokionez, lurraldeko eremua dutenek enpresako hitzarmenera lotutako 3 enpleguetatik 2 barnebiltzen dute -%67,5-, hau da, 1999arekiko ehuneko 3,5 puntuko aurrerakuntza. Kopuru horrek bikoiztu egiten du Estatuko eremua duten hitzarmenen pisu espezifiko.

2.9. taula ENPRESAKO HITZARMENETARA LOTUTAKO SOLDATAKO
POPULAZIOAREN BANAKETA HITZARMENAREN NEGOZIAZIO
LURRALDEAREN ARABERA.

	2001		1999	
	Enpleguak	%	Enpleguak	%
Lurraldekoak	61.021	67,5	56.913	64,0
Estatukoak	27.113	30,0	28.539	32,1
Lurraldeartekoa	2.281	2,5	3.455	3,9
GUZTIRA	90.415	100,0	88.907	100,0

Bilakaerari dagokionez, aldaketa bat ikusten da 1997-1999ko biurtekoarekiko, orduan lurraldeko eremuaren garrantzi erlatiboa beheraka baitzihon. Lurralde-eremuak, ordea, 2001. urtean erakusten duen banaketak 1997an erakusten zuen pisu espezifiko baina handiagoa erakusten du.

Modu horretara, 1999. urtearekiko, lurraldeko eremua berreskuratu egiten da, Estatuko eremua dutenen kalterako 1997-1999ko biurtekoan ikusten zenarekin alderatuz. Aldi horretan Estatuko eremua zutenek bi puntu gehitu zuten –1997an %30,0tik %32,1era 1999an- beren pisu erlatiboa²⁴. Lurralde arteko eremua aukeratu zutenen pisu espezifiko gutxitu egin da 1997. urtetik²⁵ hona ikusten zenarekiko.

Bestalde, Estatuko lurralde-eremuko enpresa-hitzarmenera lotutako langileen artean, badira 13.697 enplegu biltzen duten 20 enpresa (eremu honen %51,7a) bertako langileek EAEn dauden establezimenduetan lan egiten dutenak.

2.4. HERRI ADMINISTRAZIOAREN ZENBAKI NAGUSIAK

Herri Administrazioaren enplegua 2001ean 110.130 lagunekoa zen, hau da, 1999. urtean ziren 104.777 baino %5,1 gehiago. Hazkunde-tasa hori 1997. urtean ikusi zen gehitzeko joerarekin bat dator, joera hori areagotzen ez badu. 1997-1999ko biurtekoan enplegu hori %4,1 hazi zen aurreko biurtekoarekin ikusi zen geldialdiaren ondoren.

Nolanahi ere, hazkunde hori sektore pribatuari dagokionaren azpitik dabil –nahiz eta aurreko aldietako diferentziala baino txikiagoarekin izan. Hala, enplegu publikoa enplegu orokorrarekiko duen pisu espezifiko galtzen ari da: 1999an %17,2 eta 2001ean %17,0.

Ondoren analisi bereziak egingo dira herri administrazio bakoitzean (Estatukoan, erkidegokoan, lurraldeetakoan eta udaletakoan).

24 Gogorazari behar da Estatuko lurralde-eremuko enpresa-hitzarmenen barruan aldi baterako lan-enpresetako langileak sartu direla, betiere Estatuko-eremuaz bestelako bateko hitzarmenaz araututa egon daitezkeenak.

25 Adibidez, Gipuzkoa Donostia Kutxa, lehen lurraldearteko eremuko hitzarmena bazuen ere, orain Estatuko eremura aldatu da.


- Euskal erkidegoko herri administrazioa

Euskal administrazio publikoak erkidego, lurralde eta udaletako administrazioak hartzen ditu bere baitan. Oro har, positiboa izan da bilakaera, hazkunde globala %5,9koa (98.897 enplegu) izan delako.

Ondoren, alde batetik administrazio autonomikoa aztertuko da bereizirik, eta bestetik udal administrazioa eta foru administrazioa. Azken horrek antzeko emaitzak eman ditu hiru lurraldeetako administrazioetan, eta 1999. urtearekiko ere antzeko hazkunde-tasak erakutsi ditu.


- Administrazio autonomikoko enpleguaren kopurua 2001ean guztira 67.901ekoa da, hau da, 1999. urtearekiko %5,9 baino handiagoa. Hazkunde-tasa hori aurreko aldikoa -%4,7- baino handiagoa da, eta azken horrek aldaketa erakutsi zuen 1995-1997ko biurtekoarekiko, orduan euskal autonomia erkidegoko enplegua %4,0 jaitsi baitzen.

2.9. grafikoa EAE KO ADMINISTRAZIO AUTONOMIKOAREN SOLDATAKO POPULAZIOAREN BILAKAERA. 1997-2001 (HAZKUNDE TASAK BIURTEKOAK)




Aurreko aldian gertatu zenaz bestera, gauden biurtekoan, erkidegoko herri administrazioaren enpleguaren hazkundera gehienbat funtzionarioek izan duten bilakaera oinarritu da, 1999. urtearekiko %6,6 hazi baita; lan kontratadunek ordea %0,3 baino ez dira hazi.

2.10. grafikoa EUSKAL AUTONOMIAKO ADMINISTRAZIOKO SOLDATAKO POPULAZIOAREN BANAKETA, FUNTZIONARIOEN ETA LAN KONTRATUDUNEN ARABERA. 1999 2001




- Foru administrazioan enplegua %5,9 hazi da. Datu horrek aurreko biurtekoan 1997aren eta 1999aren artean eman zen geldialdia gainditu dela adierazten du. Hazkunde hori batez ere lan kontratadunen modalitateak izan duen hazkundeak -%12,6- ekarri du; funtzionarioen hazkundeak, ordea, apenas iristen da %1,0ra.

2.11. grafikoa FORU ADMINISTRAZIOKO SOLDATAKO POPULAZIOAREN BANAKETA FUNTZIONARIOEN ETA LAN KONTRATADUNEN ARABERA. 1999 2001



- Udal administrazioan gora egin du -%5,9- enpleguak 1999. urtearekiko, hein handi batean, pertsonal funtzionarioak -%7,7- ere gora egin duelako. Lan kontratadunen kopuruak, bestalde, bilakaera positiboa erakusten du, %4,5eko hazkunde-tasa erakusten baitu.

2.12. grafikoa UDAL ADMINISTRAZIOKO SOLDATAKO POPULAZIOAREN BANAKETA FUNTZIONARIOEN ETA LAN KONTRATUDUNEN ARABERA. 1999 2001



EUFALEBARA lotutako pertsonala –Udal eta foru administrazioan sartzen dena- %3,1 hazi da 1999. urtearekiko; hazkunde-tasa hori aldi bereko enplegu publiko guztiak erakusten duena baino txikiagoa da..


Udal administrazioari dagokionez, hiru enplegutik bi -%66,1-EUFALEBARA lotuta daude, eta foru administrazioan portzentaje hori zertxobait handixeagoa da: %72,4.

- Estatuko administrazioa EAEn

Estatuko administrazioak EAEn %1,6 murriztu du enplegua 1999. urtearekiko; beraz, orain guztira 11.233 enplegu ditu eta 1999. urtean 11.419 ziren Estatuaren enplegu horiek.

Estatuko administrazioari atxikitako enpleguaren osaerak erakusten duenez, %58,9 pertsonal funtzionarioa da eta gainontzeko enpleguak lan kontratadunekin betetzen dira. 1999. urteko datuekin alderatzen badugu, banaketa horrek antzeko mailak erakusten ditu; hala ere pertsonal funtzionarioari dagokion enpleguaren pisu erlatiboak gora egin du pixka bat: ehunekoan puntu bat eskas.

2.13. grafikoa ESTATUKO ADMINISTRAZIOKO SOLDATAKO POPULAZIOAREN BANAKETA PERTSONAL FUNTZIONARIO ETA LAN KONTRATUDUNEN ARABERA. 1999 2001



2.5. HITZARMENIK GABEKO JARDUERAK

Sektoreko hitzarmenez arautzen ez diren jarduerak 2001ean 3.122 enpresetan biltzen dira, eta horiek guztira 14.567 enplegu dituzte. 1999. urtearekin alderatuz, hazkunde garrantzitsua eman da alor honetan, ia %10,3 enpresetan eta %14,1 enpleguan.

Bilakaera hazkor hori kontraesanean dago 1997-1999ko biurtekoan ikusitakoarekin, aldi horretan behera egin baitzuen hitzarmenik gabeko jardueren pisu erlatiboak, bai enpresei dagokienez bai beren baitan biltzen zuten enpleguari dagokienez.

Hitzarmenik gabeko jardueretako enpleguaren gehiengoa zerbitzuen sektorean kokatzen da. Jarduera hauetako enplegu guztiaren gain pisu espezifiko handiena duten azpisektoreak honakoak dira:

- Osasuna eta gizarte-laguntza (enplegu osoaren %26,0 hitzarmenik gabeko jardueretan).
- Arrantza (%15,5)
- Aholkularitza eta administrazio-zerbitzuak (%14,0).
- Komunikazioak (%9,1)
- Komertzioa (%9,0).

Hitzarmenik gabeko jarduera horietako enplegua, azpisektore horietan, alegia, modu adierazgarrian metatzen da lurraldeka.

Bestalde, Araban batez ere honako sektoreetan aurki daiteke:

- Merkataritza-sektorean, oro har merkataritzarekin zerikusi duten jarduerak arautu gabe baitaude.
- Aholkularitza eta administrazio sektorea, non ofizinak eta bulegoak hitzarmenarekin erlazonatutako jarduera arautuak ez dauden, Estatu eremuko hitzarmen sektorearen arabera araututako jarduerak izan ezik.
- Garraio eta komunikazioen sektorean. Sektore horietako jarduera nagusiak garraioari atxikitako jarduerekin, beste garraio-mota batzuekin eta depositu eta biltegietan zerikusi duten sailetan biltzen da.
- Azkenik, osasuna eta gizarte-laguntzan. Sektore honetan biltzen dira ospitaleak eta sorospen pribatuko establezimenduak, baita mediku-kontsulta partikularrak ere; azken finean sektoreko hitzarmenez arautzen ez diren jarduerak denak.

Bestalde Bizkaian, badira hiru sektore hitzarmen sektorialen bitartez arautzen ez den enpleguaren hiru laurdenak biltzen dituenak:

- Altuera eta baxuerako arrantza jarduerak
- Telekomunikazio sektorea eta azkenik,
- Osasuna eta gizarte laguntza sektorearen barnean, sendagile partikularren kontsul- tekin erlazonatutako jarduerak.

Azkenik eta Gipuzkoari dagokienez, hitzarmen sektorialek arautzen ez duten oinarrizko jarduerak ondorengoak dira:

- Osasun sektorearekin erlazonatutako sendagile partikularren kontsul- tekin harreman- dutako jarduerak
- Aholkularitza eta administrazio sektorearen barnean, notaria eta erregistro jarduerak

- Garraio eta komunikazio sektorea, non oinarrizko jarduerak garraioari loturiko jarduerak, beste garraioak eta gordailu eta biltegiak adarrekin erlazionatzen diren.
- Arrantza sektorean, goi arrantza.

Agregatuen mailan arautu gabeko jardueretako enpleguaren gehiengoa, lurraldeari dagokionez, Araban -%35,8- eta Bizkaian -%44,7- biltzen da; Gipuzkoan biltzen da, ordea, gaintzeko %19,5.

2.6. AMAIERAKO ONDORIOAK

Atal honetan EAEko 2001. urteko negoziazio kolektiboaren egiturari buruzko maparen ezaugarri bereziak eta bilakaerakoak laburbilduko dira; azken finean, aurreko ataletan aztertu direnak:

- EAEko ekonomiaren bilakaerarekin bat, 1999-2001eko bitartekoan negoziazioaren eremuren bati atxikitako azterketa honetan identifikatuko soldatapekoen kolektiboa hazi egin dela -%6,4- ikusten da. Datu horrek baieztatu egiten du aurreko aldietan ikusi ahal izan den hazteko joera bai sektore pribatuan -%6,9- bai sektore publikoan -%5,1.
- Alabaina, hazkunderen erritmo horrek moteltzea adierazten du aurreko biurtekoari (1997-1999) dagokionez, aldi horretan soldatako populazioa %12,7 hazi baitzen.
- Bilakaera horren analisi kualitatiboagoari dagokionez, esan daiteke EAEko negoziazio kolektiboaren egiturari buruzko maparen egitura orokorrak, eskuarki, aurreko aldietako funtsezko ezaugarriarekin jarraitzen duela, nahiz eta oinarrizko jokaeretan nolabaiteko aldaketak eman; aipagarri dira horien artean, besteak beste, honakoak:
